

UNIBERTSITATE MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO
IRAKASLETZAN

MASTER BUKAERAKO LANA

LAGUNEKIN EUSKARAZ

Gazteen lagunarteko hizkera lantzeko
proposamen didaktikoa

ENDIKA LEGARRA NUIN

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA



Ikaslea

Endika Legarra Nuin

Izenburua

Lagunekin euskaraz: gazteen lagunarteko hizkera lantzeko proposamen didaktikoa

Masterra

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Ikastegia

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Zuzendaria

Patxi Salaberri Zaratiegi

Saila

Giza eta Hezkuntza Zientziak Saila

Ikasturtea

2018/2019

Laburpena

Iruñerrian alde handia dago euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean, zer esanik ez gazteen kasuan. Desberdintasun horren arrazoietakoa bat lagunarteko hizkerarik ez izatea da: gazteak ez dira gai testuinguru informaletan euskaraz jarioz aritzeko. Lan honen helburua arazo horri erantzutea da, hots, ikasleei lagunartean euskaraz aritzeko tresnak eskaintzea. Horretarako, lehenik eta behin Iruñerriko egoera soziolinguistikoa aztertu da, eta gazteek euskaraz ez aritzeko dituzten arrazoiak bildu dira. Jarraian, hizkuntzaren aldaeren sailkapena egin da, eta, horien barnean, erregistroetan (bereziki informalean) eta gazte hizkeran sakondu da.

Ondoren, aipatutako helburua lortzeko hiru saioko unitate didaktikoa aurkeztu da, metodologia komunikatiboa duena oinarri. Unitatea Batxilergoko 1. mailan aplikatu da eta honako jarduera hauek izan ditu: a) elkarrizketa bat entzun eta bertan lagunarteko hizkeraren ezaugarriak identifikatzea, b) esamolde adierazkorak eta biraoak ikastea, eta, c) lagunarteko egoera komunikatiboak antzeztea. Halaber, galdetegi batzuen bidez ikasleen aurre-ezagutzak eta balorazioak jaso dira. Honakoak dira saioetatik atera diren ondorio nagusiak: a) ikasleak ez daude ohituta lagunartean euskaraz egitera, b) landutako ezaugarriak eta esamoldeak baliagarri zaizkie, eta, c) lagunartean euskaraz egiteko gogoia piztu zaie.

Hitz gakoak: euskararen erabilera, erregistroak, lagunarteko hizkera, gazte hizkera, adierazkortasuna.

Resumen

En la Comarca de Pamplona hay una gran diferencia entre el conocimiento y el uso del euskera, sobre todo por parte de la juventud. Una de las razones de dicha diferencia es la carencia de registro coloquial: los y las jóvenes no son capaces de hablar en euskera con fluidez en contextos informales. El objetivo de este trabajo es dar respuesta a ese problema, proporcionando al alumnado recursos para hablar en euskera entre amigos. Para ello, se ha analizado la situación sociolingüística de la Comarca de Pamplona y las razones por las que la juventud no habla en euskera. Asimismo, se ha realizado una clasificación de las variedades lingüísticas y, dentro de ellas, se ha profundizado en los registros (especialmente en el informal) y en la jerga juvenil.

A continuación, para alcanzar el objetivo mencionado, se ha elaborado una unidad didáctica de tres sesiones basada en el método comunicativo, que se ha puesto en práctica en 1º de Bachillerato. Estos son los ejercicios propuestos: a) oír un diálogo e identificar en él las características del habla coloquial, b) aprender expresiones coloquiales y palabrotas y, c) representar situaciones comunicativas informales. También se han recogido, a través de unos cuestionarios, los conocimientos previos y las valoraciones de los participantes. Tras analizar las sesiones, se ha llegado a las siguientes conclusiones: a) el alumnado no está acostumbrado a hablar en euskera coloquial, b) las expresiones y características aprendidas les son útiles y, c) la unidad ha despertado su interés para hablar en euskera entre amigos.

Palabras clave: uso del euskera, registros, habla coloquial, jerga juvenil, expresividad.

Abstract

In the region of Pamplona there is a big difference between the knowledge and the use of Basque language, especially among young people. One of the reasons of that difference is the lack of colloquial register: young people are not able to speak Basque fluently in informal contexts. The aim of this work is to respond to that problem, providing the students resources to speak colloquial Basque. Firstly, we have analysed the sociolinguistic situation of the region and the reasons of young people not to speak Basque. Secondly, we have done a classification of the varieties of language and we have gone in depth in the registers (especially in the informal one) and in the youth slang.

Then, we have conducted a teaching unit of three sessions. This unit is based on the communicative method and was put in practice in the first level of High School. The unit consists of these activities: a) listening to a dialog and identifying the features of colloquial language, b) learning some colloquial expressions and swear words and, c) playing informal communicative situations. After putting in practice the sessions, we have gotten some principal conclusions: a) young people are not used to speak colloquial Basque, b) the expressions and features we have seen are useful for them and, c) the unit has served to arouse their interest on speaking in Basque with their friends.

Keywords: use of Basque, registers, colloquial language, youth slang, expressivity.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	6
2. ARLO TEORIKOA.....	7
2.1. Iruñerriko egoera soziolinguistikoa	7
2.1.1. Euskaraz ez egiteko arrazoiak	9
2.2. Hizkuntzaren aldaerak	11
2.2.1. Erregistroak	12
2.2.1.1. Hizkera formala	14
2.2.1.2. Hizkera informala.....	15
2.2.2. Gazte hizkera.....	17
3. ARLO PRAKTIKOA	21
3.1. Helburuak eta hipotesiak	21
3.2. Testuingurua	22
3.3. Metodologia	22
3.4. Baliabideak	24
3.5. Jarduerak.....	24
3.6. Emaitzak	27
3.6.1. Hasierako galdetegiaren emaitzak.....	28
3.6.2. Saioen balorazioa	29
3.6.3. Bukaerako galdetegiaren emaitzak.....	33
3.6.4. Helburuen eta hipotesien balorazioa	34
4. ONDORIOAK.....	36
5. AIPAMENAK	37
ERANSKINAK	39
1. eranskina	39
2. eranskina	41
3. eranskina	44
4. eranskina	47

1. SARRERA

Sarritan entzuten dugu gure inguruko gazteek ez dutela euskaraz egiten, are gutxiago lagunartean. Ezin uka daiteke hori hala dela. Baina zergatik gertatzen ote da hori?

Faktore ugariak dute eragina jokaera horretan, noski: ohiturak, gaitasunak, inguruak eta abarrek. Bada, ordea, maiz aipatzen ez den arrazoia, gazteen jokabidea ulertzeko gakoa izan daitekeena: lagunekin euskaraz aritzeko hizkera egokirik eza, hain zuzen ere. Gazteek gutxitan erabiltzen dute euskara, baina egiten dutenean ez zaie natural ateratzen. Gai formaletan euskaraz aritzera ohituta daude, baina lagunarteko testuingururako baliabideak falta zaizkie normalean. Euskalki guztietan izaten dute gazteek noizean behin erdararen beharra, adierazkortasuna behar denean bereziki. Iruñerrian, ordea, joera hori erabatekoa da.

Lagunarteko euskararen gabezia hori hertsiki lotuta dago gure hizkuntzaren estatus sozialarekin. Hizkuntza nagusien, besteak beste ingelesaren, gaztelaniaren edo frantsesaren kasuan, eskola erregistro formala ikasteko eremua da, eta lagunartekoa etxean eta kalean barneratzen dute. Euskararen kasuan, ordea, egoera bestelakoa da. Euskara hizkuntza gutxitua da. Beraz, etxeak eta kaleak gurea bezalako inguruneetan ez dute hizkera kolokialaren ikaskuntza bermatzen, kasu gehienetan behintzat. Are gehiago, gaur egun badira euskara eskolan bakarrik erabiltzen duten euskaldun ugari, eta bertan ere nekez, normalean erdara izaten baita nagusi D ereduko ikastetxeetan ere. Eskolatik kanpo, ordea, are murriztagoa da euskararen presentzia, etxeok maiz ez baitakite euskaraz eta lagunartean ez baitaude ohituta egitera. Beraz, gure inguruko gazte gehienek ez dute lagunarteko hizkera ikasteko aukerarik.

Hori guztia kontuan hartuta, eskola batez ere testuinguru formalera bideratutako eremua bada ere, euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan hizkera informalak ere izan beharko luke tokia bertan.

Ildo horri jarraituz, lan honen helburu nagusia honakoa da: nerabeei lagunartean euskaraz hitz egiteko behar dituzten tresnak eta baliabideak eskaintzea, baita horrelako testuinguru batean hitz egiten trebatzea ere, betiere kontuan hartuta eskolan egindakoa ez dela aski eta horrek jarraipena izan beharko lukeela eguneroko bizitzan. Horretaz gain, tresna horien bitartez eta eginen dituzten jardueren bitartez, lagunartean euskara

erabiltzeko gogoia piztea ere bilatzen da. Egia da azken helburu hori ez dela oso behargarria eta honelako proiektu xume batean ia utopikoa ere izan daitekeela. Baina ezinbestekoa da helburu hori ere burutan izatea, jarduerak bideratzeko giltza izan daitekeelako, eta, azken finean, lagunarteko hizkera garatzearen xedea hizkera hori benetako praktikara eramatea izan behar delako, halabeharrez.

Lan hau gauzatzeko, arlo teorikoan honako atal hauek jorratuko ditut. Lehenik eta behin, Iruñerriko egoera soziolinguistikoa, bereziki gazteena, zertan den zehazteko datu batzuk emanen ditut. Horrekin batera, gazteek euskara ez erabiltzeko izan ditzaketen arrazoiez mintzatuko naiz. Jarraian, hizkuntzaren aldaeren sailkapena egingen dut. Horien barnean, erregistroen inguruan arituko naiz lehenik, eta erregistro informala ezaugarrietan sakonduko dut. Ondoren, gazte hizkera definituko dut eta euskal gazte hizkeraren zenbait ezaugarri aipatuko ditut.

Arlo teorikoa bukatuta, hiru saioko unitate didaktikoa aurkeztuko dut. Lehenik eta behin, unitatearen helburuak aurkeztuko ditut, baita praktikan jartzean espero denaren inguruko zenbait hipotesi ere. Ondoren, proposamena praktikan jartzeko testuingurua azalduko dut, eta aukeratutako metodologia eta erabilitako baliabideak zein izan diren erakutsiko. Jarraian, prestatutako jarduerak zehatz-mehatz esplikatuko ditut, eta, bukatzeko, saiok egin ondoren ateratako emaitzen berri emanen dut. Azkenik, lan osoari dagozkion ondorioak aterako ditut.

2. ARLO TEORIKOA

2.1. Iruñerriko egoera soziolinguistikoa

Nafarroako Foru Komunitateko 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren (Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza & Euskararen Erakunde Publikoa, 2017) datuak oinarri hartuta, Iruñerrian alde handia dago euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean.

Iruñerria bere horretan hartzen duen daturik ez dagoenez, 1986ko Euskararen Foru Legeak zehazten duen eremu mistoko datuak hartuko ditut kontuan. Pentsa daiteke datu horiek Iruñerrikoen antzekoak izanen direla, eremu mistoko biztanle gehienak bertan bizi baitira.

Inkestaren arabera, eremu mistoan 16 urtetik gorako biztanleen %11,3 euskalduna da, %12 euskaldun hartzailea (euskara ulertzeko gai dena) eta %76,8 erdaldun elebakarra. Horrek esan nahi du biztanleen %11,3k duela euskaraz hitz egiteko gaitasuna. Dena den, horien artean denek ez dute erraztasun bera euskaraz aritzeko: euskaldunen artean %8,4 euskal elebidunak dira, hau da, hobeki moldatzen dira euskaraz erdaraz baino, %19,6 elebidun orekatuak dira, alegia, berdin moldatzen dira bi hizkuntzetan, eta, azkenik, %71,9 erdal elebidunak dira, hots, hobeki moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Hori ere kontuan hartzeko datua da.

Adinaren arabera ere datu esanguratsuak ematen dizkigu inkestak. Kasu honetan eremu mistoko daturik ez dagoenez gero, Nafarroako datuei erreparatu diet. Duela 25 urte ez bezala, gaur egun Nafarroako euskaldun gehienak gazteak dira: 16-24 (biztanleria osoaren %25,8) eta 25-34 (%18,8) urte bitartekoak, hain zuzen ere. Hala, gazteenen euskararen ezagutza biztanleria osoarena halako bi da: %25,8 vs %12,9. Multzo honetan sartzen dira, hain zuzen ere, gure inguruko ikastetxeetako ikasle asko, besteak beste lan honetan aztergai izanen direnak. Nolanahi ere, ezagutzak gora egiten duen neurri berean, euskaldunen erraztasunak behera egiten du adin tarte horietan. Nafarroan euskaldunen %23,2 dira euskal elebidunak, %25,7 elebidun orekatuak eta %51,1 erdal elebidunak. 16-24 urteko gazteen artean, ordea, euskal elebidunen kopurua %16,9ra jaisten da, eta elebidun orekatuena %20,6ra. Aldiz, erdal elebidunen kopurua %62,6ra igotzen da.

Hortaz, esan dezakegu gure inguruko gazteen artean euskararen ezagutza gainerako adin tarteena baino altuagoa dela, baina ezagutza horren kalitatea, ordea, apalagoa.

Erabilera dela eta, datuak oso bestelakoak dira. Nafarroan, 2016ko datu aitortuen arabera, biztanleen %6,6k erabiltzen du euskara erdara adina edo gehiago, eta %5,6k erdara baino gutxiago. Gainerakoek ez dute euskara erabiltzen. Eremu mistoan, ordea, kopuruak desberdinak dira. %3,2k egiten du euskararen erabilera trinkoa, eta %10,8k erabiltzen du erdara baino gutxiago. Kopurua, ezagutzarekin alderatuta, nahiko murrizta dela ondoriozta daiteke, bere burua euskalduntzat dutenen %28 inguruk baizik ez baitu euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen.

Soziolinguistika Klusterraren (2017) 2016ko Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-neurketak ere antzeko emaitzak erakusten ditu. Gainera, kontuan hartu behar da kasu honetan datuak behaketaren bidez lortu direla, eta Inkestaren kasuan, berriz, aitorpenen

bidez. Neurketaren arabera, Nafarroan %6,6koa da euskararen erabilera, eta hiriburuan %2,9koa.

Dena den, aipatu beharra dago 2016ko bi ikerketen datuak aurreko urteetakoak baino baikorragoak direla, euskararen erabilerak goranzko joera baitauka oro har: Inkesta Soziolinguistikoari jarraikiz, 2011tik 2016ra %1,7tik %3,2ra igo zen eremu mistoko euskararen erabilera trinkoaren ehunekoa. Kale-neurketaren datuek ere goranzko joera erakusten dute, horren garbia ez bada ere. Gainera, adinari begiratzuz gero, emaitza positiboagoa dela esan daiteke. Izan ere, Nafarroa mailan helduenen artean erabilera beherantz badoa ere, belaunaldi gazteenen artean joera goranzkoa da, testuinguru formal zein informaletan.

Hori guztia kontuan hartuta, eta lehenago esan bezala, erabileraren datuak ez dira ezagutzak iradokitzen duen neurrira iristen. Zergatik, baina? Zer arrazoi ote dago desberdintasun horren atzean?

2.1.1. Euskaraz ez egiteko arrazoiak

Galdera horrek erantzun ugari izan ditzake, asko izan baitaitezke euskaraz jakin eta ez egiteko arrazoiak. 2018an, Euskal Ikasketetako Graduko lan baterako, Iruñeko Txantrea auzoko bi lagun-talde euskaldunekin mahai inguru bana antolatu nuen, eta galdera hauxe luzatu: euskaldunak izanda, zergatik ez diren euskaraz aritzen. Beren erantzunak kontuan hartuta, zenbait arrazoi mota bereizi nituen, jarraian aipatuko ditudanak (Legarra, 2018):

- **Ohitura:** hau izan zen aipatuena. Gure inguruko gazte asko ingurune erdaldunean heziak izan dira eta euskara arrotza suertatzen zaie eguneroko bizitzan.
- **Gaitasuna:** VI. Inkesta Soziolinguistikoak iradoki digun gisan, Iruñerriko gazte euskaldun gehienak erdaraz baino okerrago moldatzen dira euskaraz. Maiz ez dira gai sentitzen, eta hori dela-eta ez dute egiten. Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Uriaren arabera (2016: 246), “gazte batzuek aitortzen dute ez direla ausartzen hitz egitera, uste dutelako euren euskara ez dela behar bezain ona”.
- **Motibazioa eta kontzientzia:** batzuek onartzen dute euskaraz ez egitearen erantzukizuna berena dela, eta aitortzen dute ez daudela behar bezain kontzientziatuta eta euskaraz egiteak ez diela behar besteko motibaziorik sortzen.

Hala ere, hori ez da kasu guztietan gertatzen. Gure inguruko ikastetxeetan euskararekiko mota guztietako jarrerak topa ditzakegu.

- **Familia:** etxeko hizkuntza sozializazioak eragin handia du, bai euskaraz aritzeko erraztasunean, baita erabileran ere. Gure eremuan gazte gehienek erdara besterik ez dute jaso etxean. Etxean euskara jaso dutenak ere badira, ordea, eta askotan horiek izaten dira klasetik kanpo ere euskara erabiltzeko ahalegina egiten dutenak. Dena den, azken horiek ere askotan erdarara jotzen dute, hein batean gehiengoaren presioa dela medio.
- **Testuinguru soziolinguistikoa eta politikoa:** ikertutako gazteen arabera, Iruñerrian zaila da euskaraz egitea, inguruak ez baitu laguntzen. Testuinguru oztopatzaile (Ortega et al., 2016: 85) baten aurrean geundeke, kalean euskara gutxi entzuten baita. Kasaresen (2010: 118) esanetan, “gazte euskaldun horietako anitz nolabaiteko *euskaldun ezinduak* dira, erdal inguruak berak ezinduak, inguruak ez baitie bide eman euskara normaltasunez erabiltzeko eta horretara ohitzeko”. Horretaz gain, duela gutxi arte Nafarroan izandako politikari ere egozten diote errua aztertutako gazteek.
- **Hezkuntza:** denak ados ez bazeuden ere, elkarrizketatutako zenbait gaztek eskolatze garai osoan zehar jasotako hezkuntzari ere egozten diote euskara ez erabiltzearen errua. Beren ustez eskolak ez du behar bezala bultzatzen euskararekiko motibazioa. Hala, kontuan hartuta ikasle gehienek hezkuntzan barneratu arte ez dutela euskararik jaso, ikasleak euskaraz egitera motibatu egin behar direla diote, eta ez behartu. Elkarrizketatuen ustez, gainera, Bigarren Hezkuntzan are handiagoa da euskararen erabilerarekiko utzikeria, bai ikasleen aldetik, baita batzuetan irakasleenetik ere.
- **Lagunarteko hizkerarik eza eta euskalkirik eza:** batetik, euskalkia arrotza eta zaila egiten bazaie ere, gustatzen zaiela eta xarma duela aitortzen dute, eta euskalkirik izanen balute errazago egingen luketela euskaraz. Izan ere, batua artifiziala suertatzen zaie lagunartean aritzeko. Horrekin lotuta, lagunartean euskaraz aritzeko baliabiderik ez dutela diote. Hori gure inguruko gazteen artean maiz ikusten den ezaugarria da: testuinguru formaletan euskaraz egiten ikasi dute, baina ez dira gai eguneroko egoera informal batean jarioz eta naturaltasunez jarduteko.

Lagunarteko hizkerarik eza eta euskalkirik eza batera aipatu ditut gazteek berek hala interpretatzen dutelako. Hau da, batua zuzenean hizkera formalarekin lotzen dute, eta hortaz, euskalkirik ez dutenez hutsunea nabari dute lagunarteko hizkeran. Dena den, geroago aipatuko dudan moduan, ez dira bi kontzeptuak nahasi behar, euskalkia eta lagunarteko hizkera ez baitira gauza bera.

Gurea bezalako testuinguru batean, azken faktore horrek lotura zuzena du aurrekoarekin, hots, hezkuntzarekin. Izan ere, gazte gehienak eskolan euskalduntzen direla aintzat hartuta, askorentzat hezkuntzaren ardura da ikasleei lagunartean euskaraz egiteko baliabideak eskaintzea, ez baitute horretarako beste biderik. Beste batzuk ez daude erabat ados ideia horrekin, lagunarteko hizkera berez sortu behar dela uste baitute, naturalki, eta ezin dela irakatsi.

Hein batean egia da lagunarteko hizkera kalean sortu ohi dela hizkuntza normalizatuetan, baina euskararen kasua bestelakoa da, eta zenbait inguruetan, behintzat, kaleak ezin du hizkera hori sortzea bermatu. Gainera, eskolak lagunarteko hizkera bultzatzeak ez du esan nahi zuzenean nola egiten den irakatsi behar duenik, baizik eta ikasleak bultza ditzakeela, zenbait tresna eta baliabide eskainiz, haiek berek hizkera hori garatzera.

Hortaz, horixe da Master Bukaerako Lan honen jomuga: eskolak berez eskaini behar duen hezkuntza formal horretatik pixka bat urrunduta, gazteei lagunartean euskaraz jarioz egiteko bideak eta tresnak eskaintzea.

2.2. Hizkuntzaren aldaerak

Atal honetan lan honen muina diren bi hizkera moten inguruan arituko naiz: lagunarteko hizkeraren eta gazte hizkeraren inguruan. Askotan elkarri lotuta egoten badira ere, ez dira gauza bera. Bataren eta bestearen ezaugarriak ikusi aurretik, ordea, ezinbestekoa da hizkuntzaren aldaeren sailkapena egitea, ondoren aipatutako bi hizkerak aldaera horien barruan kokatzeko.

Hizkuntzaren barruan hiru aldaera mota bereizi ohi dira: aldaera diatopikoak, diastratikoak eta diafasikoak (Martínez Bermúdez, 2010: 89-90, 94).

Aldaera diatopikoak geografiaren arabekoak izaten dira, eta bertan dialektoak eta azpidialektoak bereizten dira. Euskararen kasuan, euskalkiak, azpieuskalkiak eta hizkerak aipatu ohi dira aldakortasun horren barnean.

Aldakortasun diastratikoan, berriz, erabakigarria dena aldagai soziala da: adina, generoa, klase soziala, lanbidea eta abar. Aldaera mota horien barruan soziolektoak eta argotak sartzen dira. Geroago aztertuko dudan gazte hizkera, adibidez, aldaera diastratikoa da, adinaren arabera definitutako gizarte-talde jakin batek erabiltzen baitu.

Hirugarren aldaera mota aldaera diafasikoak dira. Hauek egoera komunikatiboaren arabera hiztunak egiten dituen hautuak dira, eta *erregistro* izenaz ere ezagutzen dira. Horien barnean sartzen da lan honen oinarri den lagunarteko hizkera. Jarraian, erregistroak sakonago aztertuko ditut, eta horien barnean hizkera informala nabarmenduko dut, lagunarteko hizkera honen barnean sartzen baita.

2.2.1. Erregistroak

Hona hemen erregistroen definizioa, *Euskalterm*-en arabera: “solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien, formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren arabera erabiltzen diren hizkuntza-barietateetako bakoitza”.

Definizio horren arabera, zenbait faktorek baldintzatzen dute une bakoitzean erabiltzen dugun hizkera. Hasteko, hiztunaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan, hau da, lehenago aipatutako aldagai geografikoak eta sozialak.

Bigarrenik, gaiak ere eragina du erregistroan. Gaia orokorra bada, lexikoa arruntagoa eta sintaxia sinpleagoa izan ohi da. Gaia espezifiko bada, berriz, teknizismoak eta kultismoak agertu ohi dira, baita sintaxi konplexuagoa eta abstrakzio maila handiagoa ere.

Kontuan hartu beharreko beste aldagai bat hiztunen arteko harremana da, horrek zehazten baitu formaltasun-maila. Lagunekin edo familiarekin erabiltzen den hizkera informalagoa izan ohi da; administrazioarekin edo lanean darabilguna, berriz, formala (normalean behintzat). Entzulearekiko distantzia ere aintzat hartzekoa da: oso desberdinak dira jendaurreko azalpena edo elkarrizketa pribatua.

Bestetik, diskurtsoaren kanalak ere eragina du hautatzen dugun hizketa moduan. Euskaltzaindiak (2008: 22) idatzizkoa, ahozkoa eta mistoa bereizten ditu. Idatzizkoa

landua izaten da, iraunkorra, lexiko zehatzekoa eta sintaxi konplexua duena. Ahozkoa, berriz, bat-batekoa da, ez hain planifikatua, askotan egituraz sinpleagoa, eta hizkuntzaz kanpoko aldagaiek ere eragina izan ohi dute, hala nola gorputz-adierazpenak. Mistoa, azkenik, aurreko bien artean kokatzen da. Kontuan hartu behar da ahozkoaren ezaugarriak ez direla zertan ahoz transmititutako testu batekin lotu, ezta idatziarenak idatziz transmititutako batekin ere. Adibidez, txatetako elkarrizketek ahozkoaren ezaugarriak izan ohi dituzte, kanala idatzia izanda ere. Era berean, ozenki irakurritako albiste batek idatziaren ezaugarriak izanen ditu, ahoz transmititu bada ere.

Bukatzeko, xedea edo helburu komunikatiboa ere funtsezko aldagaia da. Hitz egiten dugunean helburu bat dugu beti, hartzailleari zerbait eragin nahi diogu: jarrera bat, pentsamendu bat, jokabide bat edo erantzun bat. Helburu horren arabera ere gure hizketa moldatzen dugu.

Faktore horiek guztiak kontuan hartuta, Euskaltzaindiak (2008: 23), Hezkuntza Sailaren IRALE zerbitzuari jarraikiz, lau hizkera mota bereizten ditu:

- Hizkera kolokiala: hizkera informala da, lagunartean eta familian erabiltzen dena.
- Hizkera estandarra edo orokorra: hau da hizkera neutroena. Hiztun guztiek ulertzeko eta erabiltzeko modukoa da. Kolokialaren eta jasoaren artean dago; lehena baino formalagoa da, baina ez bigarrena bezain formala. Eskola testuinguruan, adibidez, hori izaten da ohikoena, baita kazetaritzan ere, besteak beste.
- Hizkera espezifiko: gai jakin baten ingurukoa da eta teknizismo ugari ditu. Lexikoa da bere bereizgarri nagusia.
- Hizkera jaso: hizkera formala da, goi mailakoa. Literaturan topatzen dugu batez ere.

Ikusi dugu erregistro bakoitza zein testuingurutan baliatzen den. Jarraian, erregistro bakoitzaren ezaugarri linguistikoak azaleratuko ditut, bi multzo nagusitan banatuta. Euskaltzaindiak (2008: 24) erregistro familiarak eta ez familiarak bereizten ditu; nik, ordea, *formala* / *informala* bereizketa eginen dut. Izan ere, *familiar* kontzeptuak kasu honetan hurbiltasuna adierazten badu ere, nahasgarria izan daiteke, familiako testuingurukoa soilik dela pentsaraz dezakeelako. Horregatik, *formala* / *informala* bereizketa argiagoa iruditzen zait.

Hizkera formalaren barruan estandarra eta jaso sartzen dira. Informalean, berriz, lagunartekoa eta etxekoa, hots, hizkera kolokiala. Egia da hizkera hau ez dela homogenea, ez baita berdin hitz egiten familiarekin edo lagunekin, eta, beraz, ez baita

berdina familiako hizkera eta lagunartekoa. Dena den, lagunarteko hizkera definitzeko ezaugarri hauek guztiak baliagarriak dira. Jarraian, hortaz, hizkera formalaren eta informalaren ezaugarriak alderatuko ditut, eta bigarrenean jarriko dut batez ere arreta.

Bataren eta besteren ezaugarrietan barneratu aurretik, ordea, aurreko atalean iradoki dudan bereizketa bat garbi utzi nahiko nuke. Askotan hizkera informala edo lagunartekoa euskalkiarekin lotzen dugu zuzenean, eta formala, berriz, batuarekin. Horrek, ordea, ez du zertan horrela izan.

Euskara denbora luzean inguru hurbileko hizkuntza izan da, eta inguru hurbil horretan euskalkia erabili izan da berriki arte. Testuinguru formaletan, berriz, salbuespenak salbuespen, historiako une askotan erdarara jo izan da. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskalki formalik edo lagunarteko baturik ez dagoenik (Zuazo, 2005: 217).

Izan ere, euskara historian zehar testuinguru formaletan ere erabili izan da, besteak beste literatura idatzian, eta horrelakoetan euskalkietara jo izan dute idazleek. Ez kalean erabiltzen zen euskalkira, ordea, *literatura euskalki* izeneko hizkera jasora baizik. Euskararen historian zehar zenbait literatura euskalki izan dira: lapurtera klasikoa, nafar-lapurtarra, zuberotarra, bizkaitarra eta gipuzkoarra (Villasante, 1970: 39).

Era berean, egia da euskara batua euskarak testuinguru jasoetan zeukan arautu beharra asetzeko sortu zela neurri batean, baina horrek ez du esan nahi testuinguru informaletan erabil ezin daitekeenik. Zuazok (2005: 241) zehazten duen bezala, gaur egun asko dira euskara batua besterik ezagutzen ez duten euskaldunak. Eta horietako askok, besteak beste gure inguruko ikastetxeetako ikasleek, lagunartean euskaraz egiteko gabeziak dituzte, hain zuzen ere ikasi duten euskara batua ez delako egokia testuinguru horretarako. Badira, ordea, lagunarteko euskara batu informala erraz eta modu naturalean darabilten euskaldunak. Beraz, lagunarteko batu hori indartzean eta zabaltzean dago gakoa.

Zehaztasun hori eginda, ikus dezagun zein diren hizkera formalaren eta informalaren ezaugarriak (Euskaltzaindia, 2008: 24-25; Zuazo, 2005: 215-217, 241).

2.2.1.1. Hizkera formala

Fonologiari dagokionez, ahoskera zaindua da. Hitzak osorik ahoskatzen dira.

Morfosintaxian, gramatika konplexua erabiltzen da. Aditz jokatuak ugariagoak dira, eta ahalera edo subjuntiboa maizago agertu ohi dira. Perpaus motei dagokienez, perpaus elkartuak ohikoak dira, maiz bi perpaus baino gehiago elkartzen dira, eta mota guztietako mendeko perpausak agertzen dira. Tratamendu ohikoena eztabadakoa izan ohi da, baina toki batzuetan zuketa ere erabiltzen da. Beroriketa, berriz, maila oso jasoan baliatzen da, baina oso gutxi erabiltzen da gaur egun.

Lexikoa zehatza izan ohi da, eta askotan teknikoa. Hizkera formalean, maiz, gai espezializatuen inguruan hitz egiten da. Horregatik dira ohikoak teknizismoak. Kultismoak ere agertzen dira batzuetan. Bestalde, hiztegi aberatsagoa erabili ohi da, errepikapenak saihestearren zenbait baliabide lexiko baliatzen baitira, esaterako sinonimia edo hiperonimia eta hiponimia.

Bukatzeko, maila testualean ere testu antolatzaile eta lokailu ugari erabiltzen dira, ideiak ordenatzeko, arrazoitzeko, adibideak eta azalpenak emateko eta abarretarako. Testu formalak normalean planifikatuak izateak baliabide horiek erabiltzea ahalbidetzen du.

2.2.1.2. Hizkera informala

Fonologiari dagokionez, ahoskera hizkera formalean baino arduragabeagoa izaten da askotan; ez horren zaindua, alegia. Hitzak laburtzeko joera dago, baita hitzak elkartzekoa ere: *egin ditut* → *einttut*, *orduan* → *ordun*, *zer moduz* → *zemouz*, eta abar. Horretaz gain, toki batzuetan batuak dituen arau fonologikoetatik bereizten diren zenbait arau ere ezartzen dira, hala nola *beroa* → *berua* edo *maitea* → *maitia*. Bestalde, palatalizazio adierazkorrak hizkera formalean eta informalean ager badaitezke ere, hizkera informalean sarriago agertzen dira. Beraz, hizkera mota honen adierazle direla esan daiteke. Azkenik, intonazio aberatsa ere aipatzekoa da. Hizkera informalean emozioak adierazi ohi ditugu maiz: haserrea, lotsa, harridura, tristura, poza, eta abar. Bada, intonazioak garrantzi handia du sentimendu horien adierazpenean.

Fonologiaz ari garela, beste ezaugarri bat ere aipatuko dut, hizkera mota guztietan agertzen bada ere eta, beraz, hizkera informalaren bereizgarri ez bada ere: zenbait hots bilkuraren ahoskera, hain zuzen ere. Berezi aipatzekoa da *ez* partikularen ondoko aditz laguntzaileen ahoskera, idatzian ez baita islatzen eta, hortaz, ahozkoaren ezaugarri garbia baita. Honakoak dira lotura horietan gertatzen diren bilakabideak: *z+g* → */zk/*, *z+d* → */zt/*,

$z+b \rightarrow /z\beta/$, $z+z \rightarrow /t\zeta/$, $z+n \rightarrow /n/$, $z+l \rightarrow /l/$. Horretaz gain, sudurkarien ondoko frikarien afrikatzea ere ohiko bilakabidea da: $n+z \rightarrow /nt\zeta/$.

Esan bezala, bilakabide horiek ez dira hizkera informalaren ezaugarri, ahozkoarenak baizik, baina aipatzekoak dira, gure ikastetxeetako ikasleek nekez egiten baitituzte behar bezala. Horren arrazoa daukaten idatziarekiko mendekotasuna da. Gabezia hori kontuan hartuta, lan honen muina den proposamen didaktikoan bilkura horiek landuko dira, eta horregatik aipatu ditut atal honetan.

Hizkera informalaren ezaugarriekin jarraituz, morfosintaxian gramatika trinkoa eta sinplea izaten da. Perpaus motei dagokienez, perpaus bakunak dira nagusi, eta elkartuen artean juntaturazkoak. Mendeko perpausak ez dira horren ohikoak, eta askotan aditz jokaturgabeak erabiltzen dira aditz jokatuen orde. Adibidez, toki batzuetan helburuzkoetan *-tze*ko aditz izena erabili ohi da subjuntiboa beharrenean. Dena den, bereizketa hori ez da bera toki guztietan, euskalki batzuetan lagunartean ere subjuntiboa erabiltzea ohikoa baita.

Bestetik, hitz-ordena ez da formalean bezain zaindua izaten. Kontuan izan behar da hizkera informala ahozkoa izan ohi dela, eta maiz bat-batekoa. Hori dela eta, maiz hitz egin ahala pentsatzen da esan beharrekoa, eta horrek hitz-ordenan aldaketak ekartzen ditu. Elipsiak ere ohikoak dira, helburua komunikazioa izanik elkar ulertzeko ezinbestekoak ez diren elementuak ezabatu egiten baitira sarri.

Tratamenduak direla eta, hitanoa da hizkera informalari berez dagokiona. Hala ere, esan beharra dago gero eta euskaldun gutxiagok erabiltzen dutela hitanoa, batez ere nesken artean, eta, hori dela eta, lagunartean ere eztabadakoa erabiltzea gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da. Bestalde, Iparraldeko zenbait tokitan xuketa erabiltzen da familia eremuan.

Lexikoa hizpide hartuta, hizkera informalean mailegu gehiago erabili ohi dira, bat-batekotasunagatik eta hiztegia zaintzeko halako beharrik ez dagoelako normalean. Horretaz gain, hizkera formalean egokiak ez liratekeen hitzak ere badira, besteak beste *kristona* vs *egundokoa* edo *ospa egin* vs *alde egin*. Lexiko afektiboa ere ohikoagoa da, baita kortesiazko formulak ere, hiztunen arteko harremanengatik, elkarrizketa informal askok harreman pertsonalak baitituzte oinarri.

Bestetik, hizkera adierazkorraren erabilera azpimarratu behar da. Lagunarteko hizkeran ohikoak dira biraoak, hitz-jokoak eta bestelako esamoldeak. Biraoen kasuan aipatu beharra dago sarri gaztelaniara jotzen dugula euskarak biraorik ez duelakoan, baina hori ez da inola ere horrela. Salaberriren eta Zubiriren (2007) Nafarroako biraoen bilduma ikusi besterik ez dago euskarak iraintzeko eta zirikatzekeo dituen baliabide ugarietz jabetzeko. Halaber, esklamazioen erabilera ere oso ohikoa da, lehen aipatutako emozioak adierazi beharrekin lotuta. Azkenik, argotaren arabera ere lexiko jakina garatzen da, esaterako gazteena, geroago ikusiko dugun moduan.

Hizkera informala eta formalaren arteko bereizketarekin bukatzeko, biak transmititzeko kanalen inguruan hitz egingen dut laburki. Maiz hizkera informala ahozkoarekin lotzen dugu, eta formala, berriz, idatziarekin. Egia da hizkera informala ahozkotasanaren zenbait ezaugarri dituela, hala nola bat-batekotasuna eta adierazkortasuna; hizkera formala, berriz, landuagoa eta planifikatuagoa izaten da, eta horiek idatzizkotasanaren ezaugarritzat hartu ohi dira.

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi ahozko formalik eta idatzi informalik ez dagoenik, ezta gutxiagorik ere. Adibidez, txatetako lagunarteko mezuak edo gutun informala idatziak dira; aldiz, telebistako albistegiak, eztabaida saioak edo jendaurreko ahozko aurkezpenak ahozkoak dira, eta hizkera formala darabilte.

Kontuz ibili behar da, beraz, dikotomia horrekin. Askotan, nahi gabe bada ere, lotura hori egiten dugu, eta hori ez da guztiz egokia, hizkuntzaren erregistroak mugatzera eramane baikaitzake.

2.2.2. Gazte hizkera

Lagunarteko hizkeraz aritu gara, baina hau ez da berdina adin guztietan. Hizkuntza guztietan bezala, euskaraz ere gazteek hizkera propioa dute. Adinaren arabera den heinean, gazte hizkera aldaera diastratikoaren barnean kokatzen da. Zenbait ikerketa egin dira euskarazko gazte hizkeraren inguruan, besteak beste Amonarrizek (2006; 2008) eta Ibarrek (2011).

Argot hau ulertzeko, kontuan hartu behar da gazteek beren artean hitz egiten dutenean hizkuntza estandarretik urrundu nahi izaten dutela maiz, eta hiru aldaeraren aurka egin ohi dutela: eskola-arauaren, estilo jasoaren eta helduen kulturaren aurka (Ibarra, 2011: 15). Horregatik, beren estilo propioa sortu ohi dute, eta beren hizkera

aldaera horietatik urruntzen da ezaugarri askotan. Hau lexikoan nabari da batik bat, hiztegia etengabe berritzen baitute, baina bestelako alderdietan ere gertatzen da.

Zuazok (2000) honako kontzeptu hauek erabili zituen gaur egungo euskara definitzean: “Marteko” hizkera, euskara sasiletratua eta orotariko euskara. Hiru ezaugarri horiei erdaren eragina gehitu behar zaie. Zuazo, ezaugarri horiek aipatzen dituenean, ez da zuzenean gazte hizkeraz ari, eta besteak beste kazetaritzako adibideak ematen ditu. Dena den, gaur egungo joera berriez ari den heinean, erraz aplikatu dakizkieke ezaugarri horiek gazteei ere (Euskaltzaindia, 2008: 17).

Lehena euskarak hartu dituen testuinguru berriei zor zaie. Euskara goi mailako hezkuntzara eta komunikabideetara zabaldu da, eta behar berriak sortu zaizkio. Euskalkiek behar horiek asetzeko balio ez dutelakoan, inon inoiz egin gabeko hizkera erabiltzen hasi dira euskaldunak. “Marteko” hizkeraren adibide litzateke honako esaldi hau: “esan gabe doa, Nafarroako zonalde honetan D ereduaren ezarpena errealitate bat dela jada (Zuazo, 2000: 138).

Gaur egungo euskararen bigarren joera euskara sasiletratua dugu (Zuazo, 2000: 142), hots, euskara jasoan esparru guztietara zabaltzearen ondorioz sortzen den hizkera. Hau gazteen ezaugarri propioa ez bada ere, esan daiteke gazteen artean ere zabaldua dagoela. Horri zor dakioke gazteek hainbestetan aipatzen duten beren hizkeraren artifizialtasuna.

Zuazok (2000: 145) aipatzen duen hirugarren ezaugarria orotariko euskara da, hots, zenbait euskalkitako ezaugarriak nahieran nahastea. Ezaugarriak nahasteko joera euskara idatzi jasoan ere gertatzen da, eta behar bezala eginez gero aberastasun seinale izan daiteke. Batzuetan, ordea, ezaugarriak nahieran nahasteak euskararen arauak haustea ekar dezake. Geroago ikusiko dugu berriz ere gai hau.

Dena den, ezin da euskarazko gazte hizkerari buruz hitz egin Amonarriz aipatu gabe, soziolinguista tolosarra izan baita hizkera hori gehien ikertu dutenetakoa. Amonarriz (2006) esanetan, “gaur egungo gazte euskara, aldaera geografikoekin (euskalkiekin) nahasten den soziolekto berri bat” da. “Gazte euskaldunek beraien (sic) artean modu kolokialean komunikatzeko darabilten aldaera erreala da eta estandarretik berezia”. Hala ere, kontuan hartu behar den lehen gauza da euskaraz ez dagoela gazte hizkera bat eta bakarra, ugari baizik (Amonarriz, 2008: 168).

Amonarrizek (2006; 2008: 169), lehenago hizkera informalararekin nabarmendu dugun bezala, zehazten du garai batean gazte hizkera ahozkotasunarekin lotzen bazen ere, gaur egun gero eta gehiago lot daitekeela idatziarekin ere, Whatsapp eta bestelako txatak direla eta. Izan ere, bereziki gazteen ezaugarria da hitzak laburtzea, emotikonoen, laburduren eta zeinuen bitartez.

Amonarrizen (2006; 2008: 170) esanetan, euskal gazte hizkeraren, idatziaren zein ahozkoaren, ezaugarri nagusia nahasia izatea da; euskara eta erdarak edo euskara batua eta euskalkiak nahasten dira. Horretaz gain, norik bere euskalkia beste euskalkiekin nahastea ere ohikoa da, lehen aipatu bezala. Halaber, akatsak modu naturalean onartzen dira, eta zenbait herritan kontsentsuzko forma berriak sortzen dira. Horren guztiaren helburua adierazkortasuna irabaztea da, eta hizkuntza gutxitu izatearen eta ukipen egoeran egotearen ondorio da (Amonarriz, 2006).

Esan bezala, gazte gehienek kasuan erdarazko interferentziak etengabekoak dira. Interferentzia horiek hainbat arrazoi izan ditzakete (Amonarriz, 2008: 174-175): euskarazko adierak onarpen sozialik ez izatea, euskaraz adierazkortasuna lortzeko zailtasunak izatea, euskarara heltzeko bideztat hartzea, besteen hizkerarekin bat egin ahal izatea, erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz egotea eta lokuzioak eta esaera zaharrak ez ezagutzea edo interpretatzen ez jakitea.

Amonarrizek (2008: 177) aipatzen duen beste nahasketa bat euskalkien eta batuaren artekoa da. Honetan ez dut asko sakonduko, gure ikastetxeetako ikasle gehienek ez dutelako euskalkirik eta, beraz, ez delako erdararen interferentziak bezain ohikoa gure artean. Hala ere, aipatzekoa da gazteek ahal dutenean euskalkirantz jotzen dutela, hurbila, kolokiala, benetakoa, intimoa eta jatorra delakoan. Dena den, lehen ere aipatu dut lotura horrek ez duela zertan erabatekoa izan.

Horretaz gain, Amonarrizek (2008: 179), Zuazok bezala, euskalkien arteko nahasketa aipatzen du, eta zenbait arrazoi ematen ditu horretarako: hedabideen eragina, gazteen mugikortasun gero eta handiagoa, unibertsitate ikasketak, teknologia berriak eta musika.

Iñigok ere (2007: 291), Bortzirietako gazteen gaur egungo mintzairaz diharduenean, joera aldaketa horren berri ematen du. Eragile berri horiei esker bertako euskararen egoera hobera doala dio, baina aldi berean bertako berezitasun batzuk galtzen ari direla.

Edonola ere, Amonarrizen (2006) ustez, kontuan hartu behar da ingurune guztietan ez dela bera hizkera nahasi hori. Are gehiago, toki batzuetan *galeratzat* har daitekeena beste batzuetan *irabazia* da, gazteak beti erdaraz egitetik euskara nahasi hori egitera pasatzen baitira. Bat nator ideia horrekin, eta esanen nuke kasu batzuetan erlatibizatzea komeni dela. Adibidez, Iruñeko ikastetxeetako ikasleen kasuan klasetik kanpo euskaraz aritze hutsa lorpena dela esan daiteke, eta nire ustez ez da komeni kasu horietan zuzentasuna edo garbitasuna eskatzea. Beste testuinguru batzuetan egin behar da, noski, baina Iruñeko kaleetan gazteen artean entzuten den euskara oro positibotzat har daiteke bere horretan.

Zentzu horretan, ados nago Amorrorturekin (2003). Bere esanetan, gazte euskaldunen hizkuntza eredia pobretzat dauka jende askok, eta hori baieztatzeko bi arrazoi eman ohi dira: batetik, erdal kutsua daukala, eta, bestetik, etxetik euskaldunak direnen kasuan euskalkiaren eta batuaren arteko nahasketa dela (Amorrortu, 2003: 160). Bere ustetan, ordea, joera horiek halabeharrezkoak dira, eta ez dira euskal identitate galera baten seinale. Euskarak gazteentzat garrantzia badauka erabiliko dutela dio, erdal kutsuarekin bada ere. Aldiz, egoera informaletan ez dute sekula erabiliko “normatibistek azaldutako euskera garbi, jator eta petoa”, berena dela sentitu ezean behintzat (Amorrortu, 2003: 162).

Hori guztia esanda, lan honen helburuaren ildo beretik, Amonarrizek ere (2006) eskolari eskatzen dio gazte hizkera lantzeko ardura hartzea, hezkuntzak egokitasuna izan behar baitu oinarri zuzentasunaren aurrean, betiere azkeneko hori inola ere baztertu gabe, egokitasuna lortzeko ezinbestekoa baita hizkuntzaren zenbait alderdi menderatzea.

Amonarrizen (2006) esanetan, gazte hizkera sortzeko bi euskarri nagusi ditugu: tradizioa eta sorkuntza. Tradizioaren barruan sartzen da “gure ondare linguistiko osoa: estandar batua, euskalkiak, literatur tradizioa, ahozko tradizioa, lehengo eta gaur egungo erreferentzia sinbolikoak...”. Sorkuntzan, berriz, gazteek berek sortutako esamolde eta hitz berriak sartzen dira. Horretarako, ordea, “mekanismo eta baldintza egokiak” eskaini behar zaizkie. Gaur egungo gazteen hizkeran sorkuntza nahiko eskasa da (Amonarriz, 2008: 181). Dena den, badira gazte hizkerari dagozkio ekarpen lexikal eta esamolde batzuk: *jota = oso* Oñatin, *kriston = oso* Gipuzkoan, *zerki = zer gisa* Baztanen, *zeba* erabiltzea galdera zein erantzunetan, eta abar.

Lan honen helburua aipatutako bi euskarri horiek uztartzea da. Batetik, ikasleei lagunartean hitz egiteko tradizioetik datozen baliabideak irakastea eta, bestetik, haiek berek beren hizkera propioa sortu ahal izateko tresnak eskaintzea eta horretarako bidea irekitzea. Beraz, arlo teorikoa bukatuta, arlo praktikoa egiteko horri helduko diot.

3. ARLO PRAKTIKOA

Arlo teorikoa landutako gai guztiak uztartuz, atal praktikoa honetan gazteen lagunarteko hizkera lantzeko hiru saioko proposamen didaktikoa egingen dut. Lehenik eta behin, proposamenaren helburu zehatzak finkatuko ditut eta zenbait hipotesi formulatuko ditut. Jarraian, proposamena aplikatu den testuingurua deskribatuko dut. Ondoren, jarraitutako metodologia azalduko dut, baita erabilitako baliabideak aipatuko ere, eta horren ostean diseinatutako jarduerak zehazki azalduko ditut. Bukatzeko, jardueren aplikazioa nola joan den baloratuko dut eta diseinatutako unitatetik atera ditudan emaitzak azalduko ditut.

3.1. Helburuak eta hipotesiak

Hiru saioko unitate didaktiko honen helburu nagusia ikasleei lagunartean euskaraz aritzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea da.

Helburu nagusi horretaz gain, ordea, badira bestelako helburu zehatzagoak ere:

- a) Ikasleei ikusaraztea testuinguru guztietan ez dugula berdin hitz egiten eta, beraz, lagunartean ez dela klasean erabiltzen den erregistro bera erabiltzen.
- b) Gaztelaniak bezala, euskarak ere lagunartean euskaraz egiteko modu jakina duela ohartzea.
- c) Lagunarteko hizkeraren ezaugarriak ezagutzea, elkarrizketetan identifikatzeko gai izatea eta erabiltzea.
- d) Lagunartean eta gazteentzako hurbilekoak diren gaietan erabiltzen diren zenbait esamolde eta birao ezagutzea eta erabiltzen jakitea.
- e) Lagunartean ohikoak diren egoeretan euskaraz elkarrizketan aritzeko gai izatea.
- f) Euskararekin gozatzea eta gozaraztea eta lagunartean euskaraz egiteko gogo piztea.

Helburuak horiek izanik, honako hauek dira hasiera batean espero diren emaitzak:

- Ikasleak, gehienak behintzat, ez daude ohituta lagunartean euskaraz egitera.

- Ezaugarri batzuk erraz identifikatuko dituzte. Beste batzuk, berriz, zailak egingen zaizkie.
- Landuko diren esamolde eta biraoetako batzuk ezagutuko dituzte edo senari jarraituz ulertuko dituzte, baina beste zenbait arrotzak izanen zaizkie.
- Ez daude ohituta egoerak, are gutxiago egoera informalak, antzeztera. Askori zaila egingen zaie, eta batzuei agian ez zaie jarduera gustatuko, lotsa emanen baitie. Beste batzuei, aldiz, asko gustatuko zaie, eta rolean sartuko dira. Elkarrizketak aurretik prestatu arren momentuan inprobisaziora joko dute, eta erdarazko esapide zenbait botako dituzte. Irri asko egingen dute eta elkarrizketak behin eta berriz moztuko dira.
- Batzuei baliagarri izanen zaizkie unitatea eta bertan jasotako tresnak, eta lagunartean euskaraz egiteko gogoia piztuko zaie. Beste batzuek, berriz, askorik ikasi ez dutela edo egindakoak balioko ez diela esanen dute.

3.2. Testuingurua

Unitate didaktikoa hiru saiotakoa da, eta Biurdana BHIIn jarri da martxan, Practicum II egin dudan ikastetxean, alegia. Batxilergoko 1. mailako talde batean aplikatu da, *EGA helburu* izeneko hautazko ikasgaietan, hain zuzen ere. Astean 55 minutuko hiru saio dituzte ikasgai horretan.

16 eta 18 urte bitarteko ikasleek osatutako taldea da, tartean errepikatzaile batzuk baitaude. Osotara 25 ikasle dira, 17 neska eta zortzi mutil. Saioren batean baten batek huts egin bazuen ere, ikasle guztiek hartu dute parte unitate honetan.

Hiru saioak aste berean egin dira. Lehena 2019ko apirilaren 9an, asteartean, goizeko 8:15ean; bigarrena hilaren 10ean, asteazkenean, ordu berean; eta azkena hilaren 11n, ostegunean, goizeko 10:05ean.

3.3. Metodologia

Proposamen didaktiko honek metodo komunikatiboa dauka oinarri. Metodo honen helburua ikasleek komunikazio gaitasuna era aktiboan garatzea da. Metodo komunikatiboak hizkuntza bere osotasunean hartzen du, eta zuzentasun gramatikaletik harago doa. Egokitasunari garrantzi handia ematen dio, eta ikasleen trebetasun hartzaile eta sortzaileak garatzea du helburu. Hizkuntza komunikazio- eta irudikapen-tresna den

heinean, ikasleek komunikazio gaitasuna garatuko badute hizkuntza erabili egin behar dute (Eusko Jaurlaritza, 2011: 7).

Lan honen helburuak bete-betean egiten du bat ikuspegi komunikatiboaren funtsarekin: hizkuntza komunikatzeko tresna da, eta garrantzitsua da hiztunak egoera bakoitzean nola jardun jakitea. Lagunarteko erregistroa lantzean egokitasunak berebiziko garrantzia hartzen du, egoera jakin batean hitz egiteko modua ari baikara lantzen. Horregatik, laster ikusiko dugun moduan, proposamen honetako jarduerak ikasleek egoera jakinetan komunikazioa lantzerantz daude bideratuta, dela entzumena landuz, dela mintzamenaren bidez.

Ikuspegi komunikatiboaren barruan, unitate honen jarduera nagusian, hirugarrenean, baliatu den metodoa simulazioarena da (Martinez & Urizar, 1985: 175). Ikasleak taldeka jarri dira, eta guztion artean lagunartean ohikoak diren zenbait egoera azalatu ondoren, talde bakoitzari nahi dutena aukeratzeko eskatu zaio, eta egoera hori denen artean antzezteko. Beraz, metodoa rol jokoan antzekoa da, baina ez erabat, ikasleek ez baitute egoera eta rol jakin bat jaso; egoera eta rola libreki aukeratzeko utzi zaie. Dena den, esan daiteke Bigarren Hezkuntzan rol jokoak erabiltzeak dituen helburuak betetzen dituela (Muggleston, 1977; *apud* Martinez & Urizar, 1985: 174): ikasleak bizitza errealean eta klasetik kanpoko egoeretan izanen dituzten egitekoetarako prestatzea, sormena eta askatasuna barne hartzen dituzten mintzapraktika-saioak eskaintzea eta komunikazio-gaitasuna garatu eta ebaluatzeko aukera egokia eskaintzea.

Ildo beretik, ahozkoaren garrantzia ere aipatu behar da. Ikusi dugunez, lagunarteko hizkera ahoz garatzen da normalean, eta gure ikasleek hutsune nabarmenenak ahozkoan izan ohi dituzte. Beraz, jarduera hau ahozko jariora lantzeko tresna ere bada.

Bukatzeko, unitatea bera osatzen duten jardueraz gain, galdetegiak ere baliatuko dira lan honetan. Bi galdetegi betearazi zaizkie ikasleei, bata lehen saioaren hasieran eta bestea azkeneko saioaren bukaeran. Bi galdetegiak 1. eranskinean irakur daitezke.

Galdetegien helburuak bi dira. Hasierako galdetegiaren bidez ikasleen hasierako egoera, hizkuntza ohiturak eta aurre-ezagutzak zein diren jakin nahi da, unitatean zehar eta, batez ere, lanaren emaitzak baloratzean kontuan hartzeko. Bukaerako galdetegiarekin, berriz, ikasleek unitatearen inguruan egiten duten balorazioa ikusi nahi da. Balorazio hori, behaketarekin batera, funtsezkoa da lanaren ondorioak ateratzeko unean.

Galdeketak erantzun librekoak dira, hots, ez da zenbait aukeraren artean hautatu behar. Hortaz, metodo kualitatiboa erabili da. Erantzun irekiak eskatzearen helburua ikasleek pentsatzen dutena zehazki jakitea da. Izan ere, helburua ez da ariketei edo unitateari nota bat jartzea, hobetu beharrekoek eta ongi dauden gauzez jabetzea eta eragin diren sentrazioak ezagutzea baizik.

3.4. Baliabideak

Atal honetan jarduerak diseinatzeko orduan erabili diren baliabideak aipatuko ditut.

Batetik, IKA (2018) *Campion* euskaltegiaren materiala baliatu da. Euskaltegi horrek metodo komunikatiboa du oinarri, eta hizkera informala asko lantzen du. Hori dela eta, lagunarteko elkarrizketak islatzen dituzten zenbait entzungai ditu, ikasleentzako eredutzat erabiltzen direnak. Entzungai horietako bat, *Ez naiz ongi ibili* izeneko, lehen jarduera egiteko oinarria izan da.

Bigarrenik, Urtxintxa Eskolaren (2019) esamolde eta hitz adierazkorren zerrenda erabili da. Urtxintxa gazteen aisialdirako taldea da, eta horregatik gazte hizkera biltzen duen materiala dauka. Zerrenda horretan, ligatzeko, adarra jotzeko, haserretzeko eta bestelako egoeretarako hitz eta esamoldeak ageri dira, gazteen eguneroko jardunean oso erabilgarriak direnak. Horietako batzuk bigarren jardueran bildu dira.

Bestetik, Salaberri eta Zubiriren *Biraoak. Nafarroan bilduak* (2007) liburua ere baliatu da, euskaraz ere biraoak eta irainak badirela erakusteko. Birao horietako batzuk bigarren jardueran txertatu dira.

Bukatzeko, *Berriaren* (2018) bideo bat erabili da bigarren jarduera ixteko. Bideo horretan euskarazko irain ugari entzun daitezke. Bideoaren helburua ere euskaraz biraoak badirela erakustea da.

3.5. Jarduerak

Jarraian, unitate didaktiko hau osatzen duten hiru saioetarako prestatutako jarduerak azalduko ditut, saioz saio eta hasiera batean pentsatuta zeuden moduan. Praktikan jartzean aldaketa txikiren bat egon da. Aldaketa horien berri hurrengo atalean emanen dut, emaitzen atalean.

1. saioa

Lehenbizi, hasierako galdetegia erantzunen dute ikasleek bakarka (10').

Jarraian, lehen jarduerarekin hasiko gara. *Ez naiz ongi ibili* testua gainera irakurriko dute. Ondoren, bi aldiz entzunen dugu eta hutsuneak beteko dituzte. Bi aldiz entzun ostean, ariketa zuzenduko dugu eta elkarrizketaren edukiaren inguruan arituko gara (15'). Jarduera zein zuzenketa 2. eranskinean aurki daitezke.

Ondoren, hutsuneetako adibideak lagunarteko hizkeraren ezaugarriekin lotuko ditugu. Ezaugarriak azalduko ditugu eta horietako bakoitzaren adibideak jartzeko eskatuko diegu (15'). Hutsuneetan daudenak lagunartean ohikoak diren egiturak edo lagunarteko gai batekin lotutako esamoldeak dira:

- Aditz laguntzailea ezabatzea, ekonomiagatik: *sartu eta besteei esan beharko diet.*
- Aditz laguntzailea ezabatzea, hanpadura adierazteko: *niri tokatu behar!* Hau ez da erraza izanen haientzat, eta denbora faltagatik ez dugu asko sakonduko. Gainera azalduko dugu.
- Aginteraren erabilera: *atera zaituz, kendu paretik, edan ezazu.* Agintera lagunarteko hizkeran soilik erabiltzen ez bada ere, erregistro honetan maiz erabiltzen den baliabidea da, lagunarteko elkarrizketetan askotan ematen baitira aginduak.
- Adierazkortasuna: *lehertu eginen zara, izugarri kostatzen zait, hau da hau kuxidada, zerri-zerri eginda egon, lo seko egon, kaka zaharra, ez da giltzen arrastorik ere, honekin alferrik da.*
- Biraoak: *babalasto.*
- Parrandaren inguruko hiztegia: *botaka egin, txahala bota, aitzurra harrapatu.*

Ezaugarri horietaz gain, hitanoa ere aipatuko dugu. Izan ere, unitate honetan landuko ez badugu ere, lagunarteko hizkeraren adierazle nabarmena da.

Hirugarren entzunaldi batean, ahoskerari eta intonazioari erreparatuko diegu. Batetik, intonazio berezia noiz eta zertarako erabiltzen den aztertuko dugu: adierazkortasuna emateko.

Bestetik, zenbait hots bilkuratako bilakabideak landuko ditugu. Galdera honen helburua hitz loturen ahoskeraz jabetzea da: *ez gara* → *ezkara*, *ez dakit* → *eztakit*, eta abar. Hemen garbi utziko da hau ez dela lagunarteko hizkeraren ezaugarria, ahozko

euskara ororena baizik, eta haiek ere horrela egitera ohitu behar dutela. Hots aldaketa horietaz beren kabuz jabetzea da helburua, eta haiek esan ahala arbelean idatziko ditugu lotura guztiak: $z+g \rightarrow /zk/$, $z+d \rightarrow /zt/$, $z+b \rightarrow /zp/$, $z+z \rightarrow /tz/$, $z+n \rightarrow /n/$, $z+l \rightarrow /l/$, $n+z \rightarrow /ntz/$ (10’).

2. saioa

Hasteko, aurreko egunean landutako bilakabideak praktikatzeko zenbait esaldi irakurriko dituzte ozen, lehenbizi binaka eta ondoren denon artean (5’).

Jarraian, bigarren jarduerari ekinen diogu. Esamolde adierazkorrak eta biraoak landuko ditugu hemen. Jarduera hau 3. eranskinean dago, baita erantzunak ere.

Lehenik, esamoldeak beren esanahiarekin lotu eta gaiaren arabera sailkatu beharko dituzte. Hori egin ondoren denon artean zuzenduko dugu. Bakoitzak esamolde baten esanahia esanen du eta dagokion gaiari kokatuko du (20’).

Biraoekin ere antzeko ariketa egingen dugu. Biraoak beren esanahiarekin lotuko dituzte, eta ondoren aurreko ariketa bezala zuzenduko dugu. Biraoak lantzearekin batera, horietako asko hitz elkartuak direla ikusaraziko diegu (10’).

Jarduera bukatu ondoren, esamolde eta birao gehiago lortzeko baliabide erabilgarri batzuk aurkeztuko zaizkie. Batetik, Urtxintxa Eskolaren (2019) gazte hizkerako esamoldeen zerrenda. Bestetik, Salaberri eta Zubiriren (2007) liburua. Azkenik, *Berriak* egindako bideoa ikusiko dugu. Bertan euskarak iraintzeko dituen baliabideen aberastasuna islatzen da (10’).

Saioaren bukaeran hurrengo egunean egingen dituzten elkarrizketetarako prestatzen hasiko gara. Horretarako hiruko taldeetan jarriko ditugu. Behin taldeak eginez gero, lagunartean ohikoak diren egoeren edo elkarrizketen zerrenda idatziko dugu arbelean. Helburua egoerak haiek proposatzea da, baina batzuk izanen ditugu prest badaezpada ere, adibidez hauek: (10’)

- Zerbait antolatzea: asteburuko plana, ikasbidaia, graduazio festa, ezusteko festa bat, oporrak...
- Zerbait komentatzea: asteburuan egindakoa, partida bat, pelikula bat, parranda bat, gertatutako zerbait, amodio-kontu bat...

- Eztabaidatzea, elkarrekin haserretzea: bat beti berandu datorrelako, ez duelako etxabea ordaindu, etxabea zikina dagoelako...

Behin egoerak proposatuz gero, talde bakoitzak bat aukeratuko du hurrengo egunean elkarrizketa prestatzeko.

3. saioa

Aurreko egunean aukeratutako elkarrizketak prestatuko ditugu, 2-3 minutukoak. 15 bat minutu utziko zaizkie prestatzeko. Horretarako, aurreko bi saioetan landutako baliabideak txertatu behar dituztela gogoraziko diegu:

- Esamolde adierazkorrak
- Biraoak (elkarrizketak eskatzen badu)
- Hitz loturen ahoskera
- Intonazioa
- Ekonomia (ahalik eta esaldi laburrenak)
- Aditzaren hanpadura
- Agintera (elkarrizketak eskatzen badu)

Hirunaka denen aurrera aterako dira elkarrizketak antzeztera. Zortzi talde izanen direla kalkulatuta, 25 minutu inguru irautea espero da.

Notarako balioko duela esanen diegu, klaseko beste edozein ariketak bezala, seriotasunez har dezaten. Beraz, aipatutako ezaugarriak kontuan hartuko dira ebaluatzean, ebaluazio orri baten bidez (4. eranskina).

Denborarik izatekotan, hiru saioen balorazio orokorra egingen dugu denon artean. Ondoren, bukaerako galdetegia banatuko zaie, etxean bete dezaten.

3.6. Emaitzak

Hasiera batean prestatutako jarduerak ikusi ondoren, saioetan gertatutakoa aztertzeari ekinen diot jarraian. Hasteko, lehen galdetegiaren emaitzak azaleratuko ditut. Bigarrenik, prestatutako jarduerak nola atera diren azalduko eta baloratuko dut. Jarraian, bukaerako galdetegiaren erantzunetatik zenbait ondorio aterako ditut. Bukatzeko, hasierako helburuak eta egindako hipotesiak bete diren aztertuko dut.

3.6.1. Hasierako galdetegiaren emaitzak

Hasierako galdetegia gelakide guztiek erantzun dute, hots, 25 ikaslek. Euskararen erabilerari dagokionez, ia denek aitortu dute klasetik kanpo tokiren batean erabiltzen dutela, nahiz eta batzuek oso gutxitan erabili. Hamaika ikasle familiarekin edo familiako kide batzuekin aritzen dira euskaraz. Beste batzuek, berriz, eskolaz kanpoko jardueretan, adibidez dantzan edo kirolean, bileretan edo herrian erabiltzen dute, besteak beste.

Lagunekin, ordea, gutxiago erabiltzen dute. Seik ez dute inoiz erabiltzen, hamaseik gutxi edo oso gutxi, eta hiruk batzuetan. Gainera, erabiltzen dutenetako batzuek beren herrietako lagunekin erabiltzen dute, baina Iruñekoekin ez. Hala ere, lagunartean euskaraz aritzea zer iruditzen zaien galdetuta, hamalauri ongi iruditzen zaie, seiri oso ongi, eta bostek aitortzen dute gustatuko litzaiekeela egitea. Biren ustez beharrezkoa da, eta, azkenik, biri zaila edo arraroa iruditzen zaie. Beraz, esan daiteke ohiturarik ez badute ere begi onez ikusten dutela, oro har, lagunartean euskaraz egitea.

Lagunartean euskaraz egiteko zailtasunik duten galdetuta, hamaikak ezetz erantzun dute, eta hamalauk baietz. Zailtasunen artean honakoak aipatu dituzte: lagunak erdaldunak izatea, lagunak erdaraz hastea, lotsa, hitz batzuk ez jakitea eta gauzak azaltzeko zailtasuna. Erantzunak ikusita, zailtasunak bi multzotan sailka daitezke: gaitasunarekin lotuak eta ohiturarekin eta testuinguruarekin lotuak. Gehienek bigarren multzokoak aipatu dituzte.

Lagunartean aritzeko tresnak edo baliabideak falta zaizkien galdetzean, hemezortzik ezetz erantzun dute, eta soilik zazpik baietz. Baietz erantzun dutenek esan dute dauzkaten tresnak formalegiak direla, lagunarterako desegokiak, eta batek hitanoa landu beharra nabarmendu du. Besteen ustez, berriz, falta zaiena ez dira tresnak, baizik eta gogoia, ohitura eta praktika.

Dena den, 25etik 22ri ongi edo oso ongi iruditu zaie klasean lagunarteko hizkera lantzea. Hiruk, berriz, zalantza adierazi dute, ez dakitelako nola landu daitekeen. Ongi iruditzen zaiela esan dutenek hainbat arrazoi aipatu dituzte: horrela hobeki hitz egingen dutela, erabilera bultzatuko dela, gehiago ikasiko dutela, hitz berriak ikasiko dituztela eta euskara gure hizkuntza dela.

Bukatzeko, gehienek aitortu dute ez dutela euskaraz ligatzeko, adarra jotzeko edo haserretzeko esamolderik ezagutzen, eta baten bat aipatu dutenen artean asko

errepikatuak izan dira. Honako esamolde hauek atera dituzte denen artean: *kaben zotz, mutil/neska katxarroa, kaka zaharra, joan zaitetz pikutara, kokoteraino naukazu eta putakume halakoa*.

Bestalde, aipatzekoa da hasiera batean erantzun irekiak espero baziren ere, galderak ez zirela uste bezain irekiak. Horregatik, erantzun asko antzekoak izan dira, eta horrek ikasleak multzokatzea ahalbidetu du. Horretaz gain, erantzunak ikusita, baliteke galdetegiak hutsune batzuk izatea. Izan ere, galderaren bat anbiguo samarra izan da, eta ikasle guztiek ez dute modu berean ulertu. Adibidez, bosgarren galderan gaitasunaren inguruko erantzuna bilatzen zen, baina zenbaitek erabileraren edo ohituraren inguruan erantzun dute. Dena den, 25 ikasle izanda hori ez da arazoa izan, erantzun guztiak bere horretan aztertzeko aukera izan delako eta espero ez zen motako erantzunetatik ere ondorioak atera ahal izan direlako. Lagina handiagoa izanen balitz, ordea, komeniko litzateke galdera batzuetan zenbait erantzunen artean aukeratzeko ematea, metodo kuantitatibo ziurragoa erabiliz erantzun zehatzagoak jasotzeko.

Lehen galdetegi honetako emaitzak laburbilduz, esan daiteke ikasleak oro har ez daudela oso ohituta lagunartean euskaraz aritzera. Gehienek, ordea, ez dute uste horretarako baliabideak falta zaizkienik, eta beste arrazoi batzuk aipatzen dituzte, hala nola ohitura falta, gogo falta eta testuingurua.

3.6.2. Saioen balorazioa

Saioak, aldaketa txiki batzuk salbu, espero bezala atera dira, eta oro har ikasleen parte hartzea eta jarrera oso onak izan dira. Hiru saioetan nire tutorea eta biok egon gara, baina nik gidatu ditut batez ere.

1. saioa

Lehen saioan ikasle guztiak etorri ziren, eta emaitza positiboa izan zen. Ikasle gehienak inplikatu egin ziren eta parte hartu zuten, eta pixka bat hitz egin bazuten ere, horrek ez zuen klasea oztopatu.

Saioa espero bezala hasi zen. Hasierako galdetegiak banatu genituen eta zortzi minututan bete zituzten. Jarraian, lehen jarduerarekin hasi aurretik, denon artean hitz egin genuen euskararen erabileraren eta lagunarteko hizkeraren inguruan.

Ondoren, lehen jarduerari ekin genion. Pentsatu bezala, bi aldiz entzun genuen hutsune guztiak bete zituzten. Hasieran, entzungaiaren edukia dela eta (pertsoneietako batek txahala botatzen baitu), irri egin bazuten ere, ongi bete zuten lana.

Ozenki irakurri eta denon artean zuzendu ondoren, bigarren galdera egin genuen, hutsuneetako hitzak zegozkien ezaugarriekin lotzeko eskatzen zuena. Hasieran ez zekiten oso ongi nola egin, baina azkenean gehienek ulertu zuten, eta zuzentzean batzuk behintzat behar bezala kokatu zituzten. Hala ere, ez zuten esamolde guztiak kokatzerik izan, eta falta zirenak nik esan eta azaldu nituen. Baliteke adibideak oso garbiak ez izatea. Dena den, azkenerako esanen nuke ezaugarriak ulertu zituztela.

Bukatzeko, elkarrizketa hirugarrenez entzun genuen, intonazioari eta ahoskerari errepara ziezaieten. Ariketa honetara denboraz justu samar iritsi baginen ere, nahiko ongi atera zen, espero ziren erantzunak emateko gai izan baitziren. Hots bilkuren ahoskeraren inguruko azalpena hurrengo saiorako utzi behar izan genuen, baina behintzat entzungaiko adibide guztiak ateratzeko gai izan ziren. Beraz, azken azalpen hori kenduta, denboraz espero bezala atera zen saioa.

2. saioa

Bigarren saioa ere ongi atera zen. Oraingo honetan bi ikasle falta ziren, eta, beraz, 23 zeuden.

Saioa aurrekoa utzitako tokian hasi genuen, hots bilkuren ahoskeraren inguruko azalpenarekin. Bilakabide guztiak azaldu nizkien. Jarraian, binaka irakurri zituzten, eta ondoren esaldi bakoitza ikasle batek irakurri zuen ozenki. Ikasleek esan zutenez, bilakabide horiek aldeztatik ezagutzen zituzten, baina ez dituzte erabiltzen.

Ondoren, bigarren jarduerari ekin genion. Espero baino denbora gehixeago behar izan zuten jarduera egiteko. Esamoldeen ariketak egiten eta zuzentzen 25 minutu luzez aritu ziren. Honen atzetik, biraoena nahiko azkar egin zuten, laburragoa baitzen. Nolanahi ere, denak aritu ziren behar bezala lanean, eta gehienek bukatu zituzten ariketak. Zuzentzen ere adi egon ziren. Bazirudien nahiko gustura egin zutela jarduera.

Bestalde, aipatzekoa da espero baino esamolde gutxiago ezagutzen zituztela. Esamoldeak gaian kokatzeari dagokionez, berriz, zalantza zuten adibide batzuen kokapenarekin, ez baitzekiten ligatzearekin lotutakoetan, parrandarekin lotutakoetan edo bestelakoetan sartu. Agian *ligatzea* terminoa ez da egokiena, eta hobe da *sexuarekin*

lotutakoak jartzea. Dena den, anbiguotasun hori egotea normala da, eta zalantza horiek ez dute ariketaren helburua zapuzten, helburu nagusia esamolde berriak ezagutzea baitzen.

Saioarekin bukatzeko, Urtxintxa Eskolaren webgunea eta Salaberri eta Zubiriren (2007) liburua erakutsi nizkien eta biraoak biltzen dituen *Berriaren* bideoa jarri nien. Bideoa asko gustatu zitzaien, adi egon ziren eta irri egin zuten. Saioa bukatzeko modu ona izan zen, eta, ikasgelatik ateratzen ari zirela, elkarri ikasitako biraoak botatzen zizkiotela entzuten zen.

Hasieran egindako aurreikuspenaren kontra, ez zuen astirik eman lagunartean ohikoak diren egoerak zerrendatu, taldeak egin eta hurrengo eguneko elkarriketarako egoera aukeratzeko. Dena den, horrela izatea komeni zela pentsatu genuen, ez baikenekien hurrengo egunean zenbat ikasle agertuko ziren, azterketa zutela eta. Beraz, pentsatu genuen onena izanzen zela taldeak horren arabera moldatzea.

3. saioa

Hirugarren saioa ere oso ongi atera zen. Azkenean ikasle guztiak agertu ziren, baina lau berandu etorri ziren eta lehenago joan behar izan zuten, azterketa bat zela eta. Denbora aldetik justu ibiliko ginela uste nuen, hasierako aurreikuspenari taldeak egitea eta egoerak zerrendatzea gehitu behar baitzitzaion, baina azkenean kontrakoa gertatu zen. Bukaeran, 15 minutuko tartea izan genuen azken galdetegia bertan betetzeko eta denon artean balorazio orokorra egiteko.

Saioa egoerak zerrendatzearekin hasi genuen. Lagunartean ohikoak diren egoerak esateko eskatu nien, eta haiek esan ahala arbelean idatzi nituen. Haiek esandakoei lehenagotik prestatuta neuzkanak gaineratu nizkien.

Ondoren, taldeka jarri nituen. Taldeak aldeztatik aurretik prestatuak nituen, hiruko zazpi talde eta lau bat. Hasiera batean taldekatzeak beren esku egiteko aukera baloratu nuen, baina irakaslearekin adostuta pentsatu genuen denak eroso egoteko onena zela taldeak gerok bideratzea, beren arteko harremana eta elkarrekin lan egiteko egokitasuna kontuan hartuta. Esan bezala, ordea, lau ikasle berandu etorri ziren, eta horrek taldeak nahikoa aldatzen zituen. Beraz, lau horiek elkarrekin jartzea erabaki nuen, eta beste taldeetan ahalik eta gehien jarraitu nion hasieran neukan ideiarekin, baina aldaketa batzuk egin nituen. Azkenean lau bat talde eta hiruko hiru egin genituen.

Pentsatu bezala, 15 minutu eman nizkien bizpahiru minutuko elkarrizketak prestatzeko. Elkarrizketak, ordea, espero baino laburragoak izan ziren, gehienak minutu bat eta bi minutu artekoak, eta gainera hasieran espero ziren zortzi taldeen ordeztu baino ez zuten egin, lehen aipatutako laukoteak ezin izan baitzuen. Hortaz, esan bezala, elkarrizketak bukatuta oraindik 15 minutu gelditu zitzaizkigun azken baloraziorako.

Elkarrizketak nahiko desberdinak izan ziren. Batzuek oso prestatuta eraman zuten, eta beste batzuek, berriz, nahiko inprobisatua egin zuten. Ildo beretik, batzuk paperarekin atera ziren eta gehiena irakurri zuten; beste batzuk, berriz, paperik gabe atera ziren edo ez zuten ia erabili. Gai guztiak zerrendan aipatutakoak izan ziren: parranda, amodio-kontuak, oporrak, azterketak...

Aurreko egunetan landutako ezaugarriei dagokienez, lehenik eta behin aitortu behar dut ezin izan nituela prestatutako ebaluazio orriak nahi bezala erabili, elkarrizketak oso azkarrak eta espero baino laburragoak izan baitziren. Hori dela eta, ez nituen ezaugarri bakoitzean erabiltzen zituzten adibide guztiak apuntatu, deigarriena iruditu zitzaidana baizik. Ildo horretatik, agian elkarrizketak grabatzea komeniko litzateke, ondoren sakonago aztertu ahal izateko. Bestalde, ordea, segur aski elkarrizketa grabatzeak ikasleak urduriago jarriko lituzke, eta grabatu ez izanak giro naturalagoa eta hurbilagoa sortu zuen.

Hori esanda, aipatzekoa da ikasleek aurreko egunetan landutako esamolde eta birao ugari erabili zituztela. Nabari zen prestaketan zehar landutakoa erabiltzen saiatu zirela. Horretaz gain, lagunartean ohikoa den intonazioa ere eman zieten elkarrizketei, eta gehienak oso ongi sartu ziren egoeran. Beste ezaugarriei dagokienez, ezin izan dut ondorio garbirik atera, baina aipatzekoa da ez zutela akats askorik egin, eta, espero zenaren kontra, ia ez zutela erdarazko hitzik tartekatu. Maiz erabili zuten bakarria *tío* izan zen, eta euskaraz hori esateko zenbait ordain erakutsi nizkien: *hi*, *txo* eta *aizu*.

Bestalde, ariketa proposatu nienean gehienei lotsa ematen zien besteen aurrean antzezteak, eta ez zuten egin nahi. Prestatu ahala, ordea, elkarrizketa egiteko gogo piztu zitzaizen askori, eta taldeak atera ahala giroa berotzen eta alaitzen joan zen. Azkenerako, gehienek oso gustura eta ongi egin zuten, eta irri asko egin zuten, bai beren elkarrizketa egiten, baita besteenak entzuten ere. Horren harira, batzuetan arreta deitu behar izan nien batzuei, beren ikaskideen jarduna oztopatzen baitzuten beren iruzkinekin, baina neurri

batean normala da, egoera informalak antzeztean informaltasun hori ikasgelako girora zabaltzen baita.

Oro har, beraz, esan dezaket hirugarren saio hau oso ongi atera zela, espero baino hobeki, aurreko egunetan landutakoa baliatzeaz gain, ikasleei lotsa kentzeko eta elkarrekin ongi pasatzeko aukera eman zielako. Eta hori guztia euskaraz, gainera.

3.6.3. Bukaerako galdetegiaren emaitzak

Bukaerako galdetegia 21 ikaslek erantzun dute, eta honakoak dira beren erantzunetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak.

Bi ikaslek izan ezik, beste guztiek hiru saioak baliagarri izan zaizkiela aitortu dute, hainbat arrazoiengatik: hitz berriak ikasi dituztelako, erraztasuna lortu dutelako eta lotsa kendu dutelako, besteak beste. Ezetz erantzun dutenek, berriz, aitortu dute gauza berriak ikasi dituztela, baina ez zaizkiela baliagarri izan ez dituztelako erabiliko. Hainbat gauza ikasi dituzte ikasleek hiru saio hauetan: hitz berriak, ligatzeko, haserretzeko zein bestelako esamoldeak, biraoak eta lagunarteko hizkera orokorrean. Gainera, bik espresuki esan dute ohartu direla euskaraz gaztelaniaz bezainbeste komunika gaitezkeela lagunekin.

Jardueretan murgilduz, zazpiti jarduera guztiak gustatu zaizkie. Hamarri azken eguneko elkarrizketa gustatu zaie batez ere, arina, dibertigarria eta barregarria izan zelako. Lauri, berriz, bigarren eguneko jarduera gustatu zaie, esamolde berri ugari ezagutu zituztelako. Gustuko izan ez dituzten ariketen artean, berriz, gehienek ez dute bat ere aipatu. Bostek lehen egunekoa aipatu dute, aspergarria izan zelako edo gauza gehienak bazekizkitelako. Biri ez zitzaien elkarrizketa gustatu, lotsagatik eta deserosotasunagatik. Azkenik, bati ez zitzaion esamoldeen ariketa gustatu, aspergarria zelako.

Lehen bi saioetan nola sentitu ziren galdetuta, bost oso ongi edo oso gustura sentitu ziren, eta bederatzi ongi edo gustura. Hiru, berriz, lekuz kanpo sentitu ziren, ez zituztelako esamoldeak ezagutzen, eta bat urduri.

Elkarrizketan, berriz, lauk oso gustura egon zirela aitortu dute, eta bederatzik ongi edo gustura. Sei, berriz, urduri egon ziren, bi lotsatuta eta beste bi deseroso. Horien artean, ordea, batzuek aldi berean urduri eta ongi sentitu zirela esan dute. Are gehiago, batzuek aitortu dute urduri egon zirela, baina, hala ere, gehien gustatu zaien ariketa izan dela. Gainera, lehen esan bezala, esanen nuke urduritasuna eta lotsa desagertzen joan zirela

saioak aurrera egin ahala. Beraz, badirudi ikasitakoa aplikatzeko balio izateaz gain, askatzeko eta lotsa kentzeko ere balio izan ziela ariketak.

Erantzunak ikusita, esan daiteke ikasleentzako hiru ariketak nahiko egokiak izan direla, batez ere elkarrizketarena. Zerbait aldatzekotan, lehen ariketa alda liteke, batzuei errazegia edo aspergarria iruditu baitzaie. Gainera, ariketa horren helburu nagusia lagunarteko hizkeraren ezaugarriez jabetzea zen, eta, lehen aipatu bezala, agian ez ziren oso garbi ikusten ezaugarriak. Hortaz, konponbidea izan liteke ariketa beste modu batera enfokatzea edo elkarrizketa mamitsuago bat jartzea.

Landutako esamolde eta biraoei dagokienez, hamahiruk gutxi edo oso gutxi ezagutzen zituzten, eta bostek batzuk. Batek gehienak ezagutzen zituen, eta batek batere ez. Halaber, denek aitortu dute orain baliabide gehiago eta erraztasun handiagoa dutela lagunartean euskaraz egiteko. Beraz, esan daiteke helburu nagusia bete dela. Dena den, hasierako galdetegiari begiraturaz gero, azken erantzun horiek deigarri samarrak izan daitezke. Izan ere, hasiera batean gehienek uste zuten ez zutela lagunartean aritzeko baliabide faltarik. Baliteke saio hauek egin ondoren hasiera batean zuten uste hori aldatu izana.

Bukatzeko, hamalauk lagunartean euskaraz egiteko gogoia piztu zaiela aitortu dute, eta lauk, berriz, ezetz. Azkenik, bik esan dute gogo hori ez zaiela orain piztu, lehenago ere bazutelako.

Laburbilduz, azken galdetegi honen erantzunak ikusita, esan daiteke saioak egokiak izan direla, ikasleei gustatu zaizkiela eta baliagarriak izan zaizkiela, batez ere azkeneko saioa. Halaber, lagunartean euskaraz aritzeko baliabide ugari jaso dituzte, eta batzuei behintzat horiek praktikan jartzeko gogoia piztu zaie.

3.6.4. Helburuen eta hipotesien balorazioa

Unitate didaktikoaren emaitzekin bukatzeko, hasiera batean ezarritako helburuak eta egindako hipotesiak bete diren aztertuko dut.

Hasteko, helburu nagusia bete dela esan daiteke, ikasleei lagunartean euskaraz aritzeko baliabideak eta tresnak eskaini zaizkielako eta horietako batzuk behintzat barneratu dituztelako. Bestetik, ikasleak ohartu dira testuinguru guztietan ez dugula berdin hitz egiten, eta, gainera, jabetu dira euskarak, gaztelaniak bezala, lagunekin hitz egiteko modu jakina duela. Esan bezala, bi ikaslek espresuki aipatu dute hori bukaerako

galdetegian. Helburu horrekin lotuta, hasiera batean uste bezala, ikasleak oro har ez daude ohituta lagunartean euskaraz egitera, hasierako galdetegian ikusi denez.

Lagunarteko ezaugarriak ezagutzeari, identifikatzeari eta erabiltzeari dagokionez, helburua erdizka bete dela esan daiteke. Izan ere, ezaugarri horietako batzuk barneratu bazituzten ere, beste batzuk, esaterako ekonomiarena eta hanpadurarena, nahiko azaletik ikusi genituen, eta identifikatzeko zailtasunak izan zituzten, hipotesietan aipatu bezala. Dena den, kontuan hartu behar da hiru saio baino ez direla izan, eta denbora horretan ezin direla ezaugarri guztiak sakonki landu. Saio gehiago emateko aukera izanez gero, ezaugarri horietan sakontzea komeniko litzateke, baita hitanoa lantzea ere.

Esamolde eta biraoak ezagutzeko eta erabiltzeko helburua, berriz, erabat bete dela esanen nuke. Izan ere, landutako esamolde eta irain asko barneratu eta azken eguneko elkarrizketan erabili zituzten, modu egokian gainera. Beraz, kasu honetan teoria eta praktika oso ongi lotu zituztela esan daiteke. Horren harira, esan beharra dago uste baino esamolde eta birao gutxiago ezagutzen zituztela landutakoen artean.

Bestalde, lagunarteko egoeretan elkarrizketan aritzeko gai direla erakutsi zuten neurri batean. Gainera, espero baino gehiago gustatu zitzairen ariketa. Egia da ez zeudela ohituta egoera informalak antzeztera, eta hasiera batean lotsa zutela, baina azkenerako gehienak oso gustura aritu ziren, eta uste baino gehiago sartu ziren paperean. Era berean, egia da irri asko egin zutela eta elkarrizketak behin baino gehiagotan moztu zirela. Erdara, ordea, ez zuten ia erabili, espero zitekeenaren kontra.

Dena den, onartu behar da elkarrizketak oso laburrak izan zirela. Beraz, elkarrizketa informaletan aritzeko gai direla esan ahal izateko denbora gehiago beharko litzateke, eta, batez ere, beren bizitzetan jarri beharko lukete praktikan, benetako egoeretan ikusten baita hobekien gaitasuna lortzen ari den edo ez.

Bukatzeko, esanen nuke, tarte batez behintzat, euskararekin gozatzea eta gozaraztea lortu zutela. Horren erakusgarri dira azken eguneko elkarrizketetako algarak. Era berean, ikasle gehienek, espero baino gehiagok, aitortu dute unitatea baliagarri izan zaiela eta lagunekin euskaraz aritzeko gogoia piztu zaiela, eta kanpotik ikusita ere batzuei nabari zitzairen. Hortaz, esan daiteke gogoia piztea hein batean lortu dela. Zailena, ordea, gogo hori piztuta mantentzea eta horrek eguneroko jardunean eragina izatea izanen da.

4. ONDORIOAK

Lan honen bidez Iruñerrian euskarak duen hutsune nagusietako batean eragin nahi izan da: gazteek lagunartean euskaraz aritzeko dituzten zailtasunetan. Horretarako, lehenik eta behin, bertako gazteen egoera soziolinguistikoa eta euskaraz ez egiteko arrazoiak aztertu dira. Jarraian, hizkuntzaren aldaeren sailkapena egin da. Horien barruan, lagunarteko hizkera erregistroen artean kokatu eta bere ezaugarrien berri eman da. Ondoren, gazteen hizkeraren inguruko zenbait zertzelada eman dira.

Gaiaren inguruko nondik norakoak ezagututa, prestatutako unitate didaktikoa aurkeztu da, eta, unitatearen xehetasun guztiak aipatu ostean, saioak praktikan jartzean ateratako emaitzen berri eman da.

Hori guztia egin ondoren, honakoak dira atera daitezkeen ondorio nagusiak. Batetik, Iruñerriko euskararen egoera hoberrantz badoa ere, erabilerari dagokionez hutsune nabarmenak daudela ikusi dugu, batez ere gazteen artean, eta hutsune hori azal dezaketen arrazoi ugari daudela. Emandako hiru saioetako ikasleen erantzunak, jarrerak eta jokabideak aztertuta, ondorio hori erabat baieztatu daiteke.

Bestalde, ikusi dugu gazteek hizkuntza guztietan hizkera propioa daukatela, eta euskara ez dela salbuespena. Hala, gazteen erabilerak gora egiten badu, funtsezkoa da beren hizkera hori garatzea. Horretarako sorkuntzari bidea ireki behar zaio, baina horretaz gain funtsezkoa da sorkuntza horren oinarri izanen diren ezagutza batzuk izatea, lagunartean erabiltzen den euskararen ezaugarri direnak.

Egindako proposamenari dagokionez, esan beharra dago ikasleei lagunarteko esamoldeak eta biraoak erakustea oso egokia dela, hori baita beren artean hitz egiteko eta gerora beren kabuz sortzen hasteko behar duten oinarria. Izan ere, sortzaile izateko ezinbestekoa da sortzeko dauden moduak ezagutzea.

Halaber, eguneroko bizitzan gerta daitezkeen elkarrizketak simulatzea ere oso ariketa baliagarria da. Egia da bere mugak dituela, elkarrizketa hori ez baita inoiz erabat naturala izanen, baina naturaltasun horretara zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta errazago barneratuko dituzte ikasleek ezagutzak.

Azkenik, garbi izan behar da honakoa lan xumea dela, Master Bukaerako Lan batek dituen mugen barruan egina, eta hiru saioko proposamen didaktiko batek ezin duela aldaketa handirik eragin. Are gehiago, eskolan landutakoa benetako praktikara eraman

ezean, ezinezkoa da lagunarteko hizkera garatzea. Beraz, proposamen honek jarraipena izan beharko luke, bai ikasgelan, bai ikasgelatik kanpo ere.

Nolanahi ere, esan daiteke, bere xumetasunean, egindako proposamenaren emaitza positiboa dela, saioak espero bezala atera direlako eta lanaren helburuak neurri handi batean bete egin direlako.

5. AIPAMENAK

Amonarriz, K. (2006). “Gazte hizkeraren egungo egoera eta garrantzia”. In *Gazte hizkera: jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak*. Donostia: Urtxintxa Eskola. Hemendik eskuratua: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1134860990, [2018-03-25].

Amonarriz, K. (2008). “Gazte hizkerak - hizkera gazteak”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 167-183.

Amorrortu, E. (2003). “Hizkuntz aldakortasuna eta identitatea”. In I. Gaminde, J. L. Goikoetxea & I. Sarriugarte (arg.), *Ahozkotasuna aztergai*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 157-165.

Berria telebista (2018). “BERRIA Bizi: Irainak euskaraz”. Hemendik eskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=ip128s15Y0I>, [2019-05-14].

Eusko Jaurlaritz (2019). *Euskalterm. Terminologia Banku Publikoa*. Eusko Jaurlaritz: Kultura eta Politika Saila. Hemendik eskuratua: <http://www.euskadi.eus/euskalterm/>, [2019-02-24].

Euskaltzaindia (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.

Eusko Jaurlaritz (2011). *Orientabide didaktikoak, Euskara eta Literatura (Bigarren Hezkuntza)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsua*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

IKA (2018). IKA Champion Euskaltegiko materiala. Argitaragabea

- Iñigo, P. (2007). “Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan”. *Euskera*, 52, 291-312.
- Kasares, P. (2010). “20 urteko nafar euskaldun hori: Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 76, 101-123.
- Legarra, E. (2018). “Euskaraz, zergatik ez? Iruñerriko gazteak lagunarteko euskararen erabileraz hausnartzen”. Argitaratu gabea.
- Martinez, B. & Urizar, A. (1985). “Rol-jokoak hizkuntzen irakaskuntzan”. *Zutabe*, 7-8, 174-207. Hemendik eskuratua: http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/didakteka/rol-jokoak_hizkuntzen_irakaskuntzan?lang=en, [2019-05-14].
- Martínez, L. V. (2010). “Hizkuntzaren aldakortasuna”. In O. Lujanbio (koord.), *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 83-131.
- Mugglestone, P. (1977): “Role-Play”. In *Games, Simulations and Role-Playing*. London: The British Council, 14-16.
- Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza & Euskararen Erakunde Publikoa (2017). *VI Inkesta Soziolinguistikoa: Nafarroako Foru Komunitatea*. Iruñea.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Salaberri, P. & Zubiri, J. J. (2007). *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Iruñea: Pamiela.
- Soziolinguistika Klusterra (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketa, Euskal Herria, 2016*. Soziolinguistika Klusterra.
- Urtxintxa Eskola (2019). *Gazte hizkera*. Hemendik eskuratua: <https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>, [2019-02-25].
- Villasante, L. (1970). *Hacia la Lengua Literaria común*. Oñati: Arantzazu Edizio Frantziskotarrak.
- Zuazo, K. (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Zarautz: Alberdania.
- Zuazo, K. (2005). *Euskara batua: Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

ERANSKINAK

1. eranskina

HASIERAKO GALDETEGIA

Erantzun honako galdera hauei:

- Klasetik kanpo euskara erabiltzen duzu?

- Non? Norekin?

- Lagunartean euskaraz egiten duzu? Zenbat? Noiz?

- Zer iruditzen zaizu lagunartean euskaraz aritzea?

- Nola moldatzen zara lagunartean euskaraz egiteko? Zailtasunik topatzen duzu?

- Uste duzu lagunartean euskaraz egiteko baliabideak edo tresnak falta zaizkizula?

- Egokia irudituko litzaizuke klasean lagunarteko hizkera lantzea? Zergatik?

- Ezagutzen duzu euskaraz adarra jotzeko, ligatzeko edo haserretzeko esamolderik?
Eman adibideak:

BUKAERAKO GALDETEGIA

Erantzun honako galdera hauei:

- Baliagarri izan zaizkizu hiru saio hauek? Zergatik?

- Zer ikasi duzu?

- Landu ditugun esamolde eta irainetatik zenbat ezagutzen zenituen?

- Zein ariketa gustatu zaizu? Zein ez? Zergatik?

- Nola sentitu zara lehen bi saioetan?

- Nola sentitu zara elkarrizketan?

- Uste duzu orain lagunartean euskaraz hitz egiteko baliabide gehiago eta erraztasun handiagoa duzula? Zergatik?

- Lagunartean euskaraz egiteko gogoa piztu zaizu?

2. eranskina

1. JARDUERA: EZ NAIZ ONGI IBILI

1. Entzun elkarrizketa eta bete transkripzioko hutsuneak:

2. Lagunarteko hizkeraren zer ezaugarri nabarmenduko zenituzke hutsuneetako hitzak ikusita? Lotu adibide bakoitza dagokion ezaugarriarekin:

- Ekonomia (ahalik eta esaldi laburrenak):
- Esamolde adierazkorrak:
- Aditzaren hanpadura:
- Agintera:
- Biraoak edo irainak:
- Parrandaren inguruko hiztegia:

3. Entzun bigarren aldiz eta erreparatu ahoskerari eta intonazioari:

- Noiz erabiltzen dute intonazio berezia? Zergatik?

- Hitz batzuk ez dira idazten diren bezala ahoskatzen guztiz. Zein dira? Zergatik?

4. Praktikatu hitz loturen ahoskera esaldi hauek irakurritz:

- Mikel eta Izaskun ez ziren festetara etorri.
- Sanferminetan ez da euskara askorik entzuten.
- Ez dugu abererik, ez gara aberatsak.
- Barkatu, ez naiz konturatu.
- Ahizpak alde egin zuenez geroztik, ez dugu kanturik entzuten etxean.
- Zergatik ez zatoz pote bat hartzera?
- Egia esan, ez legoke gaizki.
- Ez nuke jakinen nola iritsi Gaztelu plazara.
- Zuek etortzen ez bazarete, gu ere ez gara joanen.

EZ NAIZ ONGI IBILI

- Aizu, Ibai, _____ samar zaude, ongi zaude?
- Ufff... egia esan, zorabiatzen hasi naiz...
- Aizu, zergatik ez zara aire pixka bat hartzera ateratzen?
- Ez, ez, utzi... pasako zait...
- Pasako zaizula?... ez duzu batere itxura onik e?... _____ kanpora eta nahi baduzu, zurekin joanen naiz.
- Tira... bada... goazennggm...

-----musika-----

- Horrelakoetan _____ ona izaten da... saia zaitetz.
- Ez, ez... buh... normalean ez dut horrelakorik egiten, _____ kostatzen zait eta.
- Baina hartu duzun alkohol guztia nonbaitetik atera behar duzu, bestela _____ eta.
Saia zaitetz _____, nik lagunduko dizut... tira... kopetatik helduko dizut.
- Ez da horren beharrik izango! Kendu! _____!
BUARRGRGRH!
- Ene! _____! Baina zuk zer edan duzu, pozalkadaka edo zer?... Zer? Hobeki zaude?
- Bai... bai baina _____ nago eta... oosso nekatutaahhhhhggg.
- Uste dut gaurkoz _____. Etxera joan beharko zenuke eta oheratu aurretik _____ pare bat basokada ur, ona omen da eta.
-
- E! Etxera joan beharko zenukeela esan dizut!... baina, baina... zer da hau? _____ eta! Eh! Esna zaitetz! Plisti-plasta! Ai ama! Putakeria hau ere _____! Etxera eraman beharko dugu bada. _____ eta besteei esan beharko diet.

-----musika-----

- (etxe atarian) beno, heldu gara. Ea zorte ona dugun eta pisukideak etxean dauden...
- (Riiin... riiin riin riin)
- Ufff! _____! Hemen ez dago inor...
- Giltzak gainean ote ditu?
- Ea! _____ duen _____ galdu ez baditu! Tira, eutsi zuek, nik bilatuko dizkiot-eta... .. ez da giltzen _____ hemen... ziur galdu egin dituela.
- E! _____! Plisti plasta! Giltzak non dituzu!... Kia, _____!
- Okerrena da auzokoren bat iritsi arte hemen egon beharko dugula. Tira, goazen hango banku hartara eta eserita egonen gara behintzat.

ERANTZUNAK

EZ NAIZ ONGI IBILI

- Aizu, Ibai, zurbil samar zaude, ongi zaude?
- Ufff... egia esan, zorabiatzen hasi naiz...
- Aizu, zergatik **ez zara** aire pixka bat hartzera ateratzen?
- Ez, ez, utzi... pasako zait...
- Pasako zaizula?... **ez duzu** batere itxura onik e?... atera zaituz kanpora eta nahi baduzu, zurekin joanen naiz.
- Tira... bada... goazennggm...

-----musika-----

- Horrelakoetan botaka egitea ona izaten da... saia zaituz.
- Ez, ez... buh... normalean ez dut horrelakorik egiten, izugarri kostatzen zait eta.
- Baina hartu duzun alkohol guztia nonbaitetik atera behar duzu, bestela lehertu egingen zara ta.

Saia zaituz txahala botatzen, nik lagunduko dizut... tira... kopetatik helduko dizut.

- Ez da horren beharrik izango! Kendu! Kendu paretik! BUARRGRGRH!
- Ene! Hau da hau kuxidadea! Baina zuk zer edan duzu, pozalkadaka edo zer?... Zer? Hobeki zaude?
- Bai... bai baina zeerri zeerri egiinda nago eta... oosso nekatutaahhhhhggg
- Uste dut gaurkoz aski duzula. Etxera joan beharko zenuke eta oheratu aurretik edan ezazu pare bat basokada ur, ona omen da **ta**.

....

- E! Etxera joan beharko zenukeela esan dizut!... baina, baina... zer da hau? Lo seko dago ta! Eh! Esna zaituz! Plisti-plasta! Ai ama! Putakeria hau ere niri tokatu behar! Etxera eraman beharko dugu **ba**. Sartu eta besteei esan beharko diet.

-----musika-----

- (etxe atarian) beno, heldu gara. Ea zorte ona dugun eta pisukideak etxean dauden...
- Riin
- ...
- Riin riin riin
-
- Ufff! Kaka zaharra! Hemen **ez dago** inor...
- Giltzak gainean **ote ditu?**
- Ea! Harrapatu duen aitzurrarekin galdu ez baditu! Tira, eutsi zuek, nik bilatuko dizkiot-eta... ... **ez da** giltzen arrastorik ere hemen... ziur galdu egin dituela.
- E! Babalasto! Plisti plasta! Giltzak non dituzu!... Kia, honekin alferrik da!

Okerrena da auzokoren bat iritsi arte hemen egon beharko dugula. Tira, goazen hango banku hartara eta eserita egonen gara behintzat.

3. eranskina

2. JARDUERA: BABALORE HALAKOA!

ESAMOLDE ADIERAZKORRAK

1. Lotu esamolde bakoitza bere esanahiarekin:

a)	Bizi al gara?		Itxura oneko neska edo mutila
b)	Gatza falta zaizu		Animo!
c)	Xagua klikatu		Norbaiten kontura bizi
d)	Eutsi goiari!		Dirurik ez eduki
e)	Pitzatuta/Ganbaratik jota zaude!		Zer moduz?
f)	Bereak eta bi esan dizkio		Adarra jo
g)	Ez dakit denbora nola jan		Lotsagabea izan
h)	Sosik gabe nago!		Mozkortuta egon
i)	Beti besteen bizkar bizi da!		Mutilak masturbatu
j)	Kanpaia jo		Utzi bakean
k)	Hori da hori azala zurea!		Aspertuta egon
l)	Ziria sartu		Lasaiegia edo motelegia izan
m)	Goazen katxaka hartzera!		Norbait oso gustukoa izan
n)	Txortan egin		Erotuta egon
o)	Ezta urrik eman ere!		Azken tragoa hartu
p)	Total eginda zaude!		Larrua jo
q)	Etxerako modukoa		Biraoak eta irainak bota
r)	Eulia kaketan bezala dabil		Inola ere ez!
s)	Zoaz antzarrak perratzera!		Neskak masturbatu
t)	Txolinduta zaude!		Gustuko pertsonaren atzetik ibili

2. Sailkatu goiko esamoldeak gaiaren arabera. Ondoren, gaineratu gai horietarako ezagutzen dituzun beste esamolde batzuk:

HASERREAREKIN LOTUTAKOAK	LIGATZEAREKIN LOTUTAKOAK	FESTAREKIN LOTUTAKOAK	BESTELAKOAK

BIRAOAK ETA IRAINAK

3. Lotu ondoko biraoak eta irainak dagokien esanahiarekin:

a)	Txoriburua		Alferra
b)	Mukizua		Tontoa, ergela
c)	Gibelaundia		Zikina
d)	Astapetroa		Erretxina, berehala haserretzen dena
e)	Ipurterrea		Beldurtia
f)	Artaburua		Umemokoa
g)	Kankailua		Buruarina, zentzu gutxikoa
h)	Oilobustia		Basatia
i)	Enasa		Burugogorra

Urtxintxa Eskolaren webgunean dituzue gazte hizkerarekin lotutako esamolde adierazkor gehiago, haserretzeko, adarra jotzeko eta ligatzeko baliatzen ahal direnak. Hemen duzue esteka:

<https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>

Hurrengo estekan, berriz, *Berriak* egindako bideo bat duzue. Nork esan du euskaraz irainik ez dagoela? Bideo honetan euskarak iraintzeko dituen baliabide ugari entzun ditzakezue:

<https://www.youtube.com/watch?v=ip128s15Y0I>

ERANTZUNAK

a)	Bizi al gara?	q	Itxura oneko neska edo mutila
b)	Gatza falta zaizu	d	Animo!
c)	Xagua klikatu	i	Norbaiten kontura bizi
d)	Eutsi goiari!	h	Dirurik ez eduki
e)	Pitzatuta/Ganbaratik jota zaude!	a	Zer moduz?
f)	Bereak eta bi esan dizkio	l	Adarra jo
g)	Ez dakit denbora nola jan	k	Lotsagabea izan
h)	Sosik gabe nago!	p	Mozkortuta egon
i)	Beti besteen bizkar bizi da!	j	Mutilak masturbatu
j)	Kanpaia jo	s	Utzi bakean
k)	Hori da hori azala zurea!	g	Aspertuta egon
l)	Ziria sartu	b	Lasaiegia edo motelegia izan
m)	Goazen katxaka hartzera!	t	Norbait oso gustukoa izan
n)	Txortan egin	e	Erotuta egon
o)	Ezta urrik eman ere!	m	Azken tragoa hartu
p)	Total eginda zaude!	n	Larrua jo
q)	Etixerako modukoa	f	Biraoak eta irainak bota
r)	Eulia kaketan bezala dabil	o	Inola ere ez!
s)	Zoaz antzarrak perratzera!	c	Neskak masturbatu
t)	Txolinduta zaude!	r	Gustuko pertsonaren atzetik ibili

HASERREAREKIN LOTUTAKOAK	LIGATZEAREKIN LOTUTAKOAK	FESTAREKIN LOTUTAKOAK	BESTELAKOAK
e, f, o, s, k	c, j, r, t, q, n	h, m, p	a, d, g, i, b, l

a)	Txoriburua	c	Alferra
b)	Mukizua	e	Tontoa, ergela
c)	Gibelaundia	h	Zikina
d)	Astapotroa	e	Erretxina, berehala haserretzen dena
e)	Ipurterrea	h	Beldurtia
f)	Artaburua	b	Umemokoa
g)	Kankailua	a	Buruarina, zentzu gutxikoa
h)	Oilobustia	d	Basatia
i)	Enasa	g	Burugogorra

4. eranskina

EBALUAZIO ORRIA

Taldea:

1. Izena:

- Esamolde adierazkorrak:
- Biraoak (elkarrizketak eskatzen badu):
- Hitz loturen ahoskera:
- Intonazioa:
- Ekonomia (ahalik eta esaldi laburrenak):
- Aditzaren hanpadura:
- Agintera (elkarrizketak eskatzen badu):
- Oharrak:

2. Izena:

- Esamolde adierazkorrak:
- Biraoak (elkarrizketak eskatzen badu):
- Hitz loturen ahoskera:
- Intonazioa:
- Ekonomia (ahalik eta esaldi laburrenak):
- Aditzaren hanpadura:
- Agintera (elkarrizketak eskatzen badu):
- Oharrak:

3. Izena:

- Esamolde adierazkorrak:
- Biraoak (elkarrizketak eskatzen badu):
- Hitz loturen ahoskera:
- Intonazioa:
- Ekonomia (ahalik eta esaldi laburrenak):
- Aditzaren hanpadura:
- Agintera (elkarrizketak eskatzen badu):
- Oharrak: